

ketok bakartzat hartuko dira, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 1989ko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauko Testu Bategineko 19. artikuluko 8. eta 9. zenbakietan aipatzen den 400.000 euroko murrizketa behin bakarrik aplikatzeko (1993ko ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arau-emailearen bitartez onetsi zen testu bategin hori, eta zenbaki horiei idazketa berria eman zaie foru arau honen bidez). Eskuraketa horien ondoriozko ondasun eta eskubideen balioa haiek sortu zirenekoa izango da.

Ezingo da inoiz ere metaketarik egin ondorengo sortzapenei dagozkien zerga-oinarriak handitzeko, kausatzaile eta oinordeko berei dago kienez.

Berdin jardungo da foru arau hau indarrean jarri aurretik sortu eta unean bertan eragina duten oinordetza-itunen kasuan.

Bigarrena.—Zerga-eroldak eguneratzeko informazio-betebeharrak

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita hamargarren xedapen gehigarriari aipatzen den informazio-eredua onartu ondorengo sei hilabeteen barruan, identifikazio fiskaleko zenbakia emateko eskumena duen herri-administrazioak jakinaraziko dizkio Zerga Administrazioari xedapen gehigarri horretan aipatzen diren datuak, foru arau hau indarrean jarri aurretik identifikazio fiskaleko zenbakia eman zaien pertsonen dagozkienak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Indarrean jartzea

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena.—Gaikuntza

Ahalmena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiari foru arau hau garatzeko eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bilbon, 2013ko abenduaren 5ean.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,
JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1914)

11/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Sozietateen Gaineko Zergari buruzkoa.

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2013ko abenduaren 5eko Osoko Bilkuran foru arau hau onartu dutela: 11/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Sozietateen Gaineko Zergari buruzkoa. Arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiak bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2013ko abenduaren 9an.

Bizkaiko Ahalduen Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**SOZIEATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO
ABENDUAREN 5EKO 11/2013 FORU ARAUA**

HITZAURREA

Hamabost urte baino gehiago bete direnean Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua indarrean jarri zenetik, eta hura osorik berritzeko prozesuari ekin beharra dago, ordutik oso bilakaera garrantzitsua izan dutelako bai nazioarteko Zerga Zuzenbideak, bai egoera ekonomiko eta sozialak berak, hala nola Bizkaiko Lurralde Historikoan, Euskal Autonomia

hayan sido consecuencia del ejercicio parcial de poderes testatorios, se procederá a acumular todas las adquisiciones que concurren en un mismo sucesor respecto del mismo causante, considerándose como una sola adquisición a los efectos de aplicar una sola vez las reducciones de 400.000 euros, a que se refieren los apartados 8 y 9 del artículo 19 del Texto Refundido de la Norma Foral 2/1989, de 15 de febrero, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado mediante el Decreto Foral Normativo 3/1993, de 22 junio, en la redacción dada a los mismos por la presente Norma Foral. El valor de los bienes y derechos correspondientes a dichas adquisiciones será el que tuvieron en el momento de su devengo.

En ningún caso, se procederá a la acumulación a los efectos de incrementar las bases imponibles correspondientes a posteriores devengos en relación al mismo causante y sucesor.

De idéntica manera se procederá en los supuestos de pactos sucesorios con eficacia de presente devengados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Norma Foral.

Segunda.—Obligaciones de información para el mantenimiento de los censos fiscales

En el plazo de los seis meses siguientes a la aprobación del modelo informativo a que se refiere la disposición adicional trigésima de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, la Administración pública competente para asignar el número que constituya el número de identificación fiscal comunicará a la Administración tributaria los datos a que se refiere la mencionada disposición adicional respecto a las personas a las que se hubiera asignado con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Norma Foral el número que constituya el número de identificación fiscal.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Entrada en vigor

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» con efectos desde el día 1 de enero de 2014.

Segunda.—Habilitación

Se autoriza a la Diputación Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Bilbao, a 5 de diciembre de 2013.

El Secretario Primero de las Juntas Generales,
JON ANDONI ATUTXA SAINZ

La Presidenta de las Juntas Generales,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1914)

NORMA FORAL 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 5 de diciembre de 2013, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

Bilbao, a 9 de diciembre de 2013.

El Diputado General de Bizkaia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**NORMA FORAL 11/2013, DE 5 DE DICIEMBRE,
DEL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES**

PREÁMBULO

Cuando se han cumplido más de tres lustros de la vigencia de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades, se hace preciso acometer un proceso de renovación integral de la misma, en la medida en que el Derecho tributario internacional y el propio escenario económico y social tanto del Territorio Histórico de Bizkaia, como del conjunto de la Comunidad

Erkidego osoan, Espainiako Estatuan nahiz Europar Batasunean, beste eremu zabalagoak ez aipatzearren. Gauza asko gertatu dira —besteak beste ekonomiaren globalizazioa edo Europar Batasuneko Zuzenbidearen bilakaera bera eta bilakaera horrek enpresen zuzeneko fiskalitatean izandako eragina— ezinbestez eskatzen dutenak Zergaren erabateko erreformarako prozesuari ekitea, eta horretarako egin da honako foru arau hau.

Krisi ekonomiko sakonak 2006an lortu ziren mailetara jaitsi du diru-sarrerera publikoen bilketa, eta ez dirudi epe laburrean tributuen bidezko sarrerak nabarmen suspertuko direnik. Gainera, gastuen aldetik, ongizate-estatuari eusteko beharrian gero eta handiagoak sortzen ari dira. Horiek horrela, beharrezkoa da aztertzea gaur egun zer eginkizun betetzen duen tributuo bakoitzak eta zenbatearaino ari den betetzen bere izaeragatik dagokion eginkizuna; hala, behar izanez gero, neurri egokiak proposatuko dira azterketa horretan agerian jarritako akatsak zuzentzeko.

Enpresa-ehuna eta gure enpresen lehiakortasuna sendotuta Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa-jarduera indarberritzeko eta aberastasuna zein lanpostuak sortzeko helburuak lor daitezten, erreforma sakona egin behar zaio 1996tik, ukitu txikiak gorabehera, bere horretan indarrean egon den Sozietateen gaineko Zergari, alбора utzi gabe haren erreforma gidatu behar duten printzipioak eta arazoak. Enpresen tributazioaren arloko neurri fiskalik aurreratuenez hornitu behar da lurralde historikoetako tributuo-sistema, egungo globalizazio ekonomikoa eta kapital-mugimenduetarako askatasuna aintzat hartuta. Aipatutako printzipio horiek are beharrezkoagoak dira gaur egungo egoera ekonomiko honetan, krisiak ez baitu epe laburrean alde egiteko itxurarik. Horregatik, Sozietateen gaineko Zergaren erreformak inbertsiorako eta enplegurako neurri erakargarriak ezartzea izan du xede, neurriok baliagarriak izan daitezten enpresen kapitalizazioa eta ekoizpen-jarduerak sustatzeko nahiz bultzada emateko ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloei.

Beste alde batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren azken urteotako bilakaera ekonomikoak goitik behera aldarazi du haren egoera ekonomikoa, bai magnitude makroekonomikoei dagokionez, bai lurraldeko enpresa-ehunaren izaerari dagokionez. Hori dela eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudian ezarritako zerga-pizgarriak berrikusi eta eguneratu beharra dago, errealtate berriari egokitzeko eta ahalik eta eraginkorrenak izan daitezten lortzeko. Betiere, kontuan izan behar dugu hazkunde ekonomiko iraunkorreko garaia bizi izan dugula (1996-2007), baina baita, haren ondoren, ekonomia- eta finantza-krisi bat ere (2008-2013), oraindik ezin iragarri den tamaina izango duena eta gure historia ekonomikoan aurrekaririk ez duena.

Gainera, azkenaldi honetan bai Europako Batzordeak bai, batez ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak lagundu dute doktrina bat garatzen, Europar Batasuneko estatu kideek enpresen zuzeneko tributazioari buruzko euren arauak garatzeko duten ahalmenaren inguruan, Europar Batasunaren Tratatuan jasotako oinarritzko askatasunak erabat errespetatuz, eta zerga-politiken koordinazioa sustatzeko zenbait neurri ezarri dituzte, batetik, zerga-arloko lehia kaltegarria ezabatzeko, eta, bestetik, Europar Batasunaren Tratatuaren ondorioetarako estatu-laguntzat har litezkeen neurrien ezarpena galarazteko.

Foru arau honetan zerga honi buruz jasotzen diren arau berriek erabat errespetatzen dituzte doktrina hori eta koordinazio ahalgin horiek. Beraz, arreta berezia jarri zaio honako egoera hauen inguruko arauak erregulatzeari: entitate ez-egoiliarrek lortutako zenbait errenta zerga-oinarrian sartzea; azpikapitalizazio egoeren tratamendua; zergapetze bikoitza ezabatzearen tratamendua; egoitza edo aktiboak atzerrira aldatzen dituzten entitateen irteerako zergapetzea, edota Transferentzia Prezioei buruzko Europar Batasuneko Baterako Foroaren lanetatik abiatuta sortutako gomendioak pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen tratamenduan jasotzea. Horretarako guztirako, bada, baliatu egin da 2007ko martxoaren 26ko 6/2007 Foru Arauaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren erreforma partziala onetsi zenetik metatutako esperientzia.

Autónoma del País Vasco, del Estado español o de la Unión Europea, por no hablar de contextos más amplios, han evolucionado de una manera muy importante en este período de tiempo, habiéndose desarrollado fenómenos como la globalización económica o la propia evolución del Derecho de la Unión Europea y su influencia en la fiscalidad directa de las empresas, que han hecho imprescindible acometer un proceso de reforma integral del Impuesto que ha dado como resultado esta Norma Foral.

En un contexto en el que la profunda crisis económica ha llevado a la recaudación de los ingresos públicos a niveles de los obtenidos en 2006, sin que sea previsible en el corto plazo una recuperación notable de los ingresos tributarios, y en el que además, por el lado de los gastos, se generan necesidades crecientes para el mantenimiento del Estado de bienestar, se hace necesario el análisis del papel que en la actualidad desempeña cada figura impositiva y de la medida en que está cumpliendo el que le corresponde según su naturaleza para, en su caso, realizar una propuesta de medidas a adoptar que subsanen las deficiencias puestas de manifiesto en dicho análisis.

El logro de los objetivos de reactivación de la actividad empresarial del País Vasco, fortaleciendo el tejido empresarial y la competitividad de nuestras empresas, y de generación de riqueza y creación de empleo exigen una reforma en profundidad del Impuesto sobre Sociedades vigente, aunque con pequeños retoques, desde 1996, sin perder de vista los principios y razones que deben inspirar su reforma, dotando al sistema tributario de los Territorios Históricos de las medidas fiscales más avanzadas en materia de tributación empresarial en el contexto actual de globalización económica y de libre circulación de capitales, más necesarios aún, si cabe, en la coyuntura económica actual en que la crisis no parece que vaya a abandonarnos en el corto plazo. Por ello, el establecimiento de medidas atractivas para la inversión y el empleo, de fomento de la capitalización empresarial, y de las actividades productivas y de apoyo a la investigación, desarrollo e innovación, ha sido el norte que ha guiado la reforma del Impuesto sobre Sociedades.

Por otro lado, el devenir económico del Territorio Histórico de Bizkaia de los últimos años ha cambiado radicalmente el panorama económico del mismo, tanto en lo que se refiere a las magnitudes macroeconómicas, como en la propia idiosincrasia del tejido empresarial del país, lo que hace preciso el replanteamiento y actualización de los incentivos fiscales establecidos en la normativa del Impuesto sobre Sociedades para adecuarlos a la nueva realidad y conseguir que sean lo más eficaces posible, teniendo presente que hemos vivido momentos de crecimiento económico sostenido (1996-2007) junto con un período de crisis económica y financiera de magnitudes todavía no precedibles y sin precedentes en nuestra historia económica (2008-2013).

Además, durante este período de tiempo, tanto la Comisión Europea como, sobre todo, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea, han contribuido a desarrollar una doctrina en torno a la capacidad de las autoridades fiscales de los Estados miembros de la Unión Europea para desarrollar sus normas sobre tributación directa de las empresas con pleno respeto a las libertades fundamentales contenidas en el Tratado de la Unión Europea, y una serie de medidas para fomentar la coordinación de las políticas fiscales que eliminen tanto la competencia fiscal perjudicial como el establecimiento de medidas que pudieran ser consideradas como ayudas de Estado a los efectos del Tratado de la Unión Europea.

La nueva regulación del Impuesto que se contiene en esta Norma Foral es plenamente respetuosa con esa doctrina y con esos esfuerzos de coordinación, y por tanto, presta especial atención a la regulación de las normas sobre inclusión en la base imponible de determinadas rentas obtenidas por entidades no residentes, al tratamiento de las situaciones de subcapitalización, al tratamiento de la eliminación de la doble imposición, a la imposición de salida de las entidades que trasladan su residencia o sus activos al extranjero o a la asunción de las recomendaciones generadas a partir de los trabajos del Foro Conjunto de la Unión Europea sobre Precios de Transferencia en el tratamiento de las operaciones entre personas o entidades vinculadas, aprovechando la experiencia acreditada desde la aprobación de la reforma parcial del Impuesto sobre Sociedades por medio de la Norma Foral 6/2007, de 26 de marzo, en este sentido.

Beste alde batetik, honezkero ezin da zalantzan jarri foru erakundeek badutela eskumena araubide erkideko lurraldean indarra duen zerga-araubideaz bestelako bat ezartzeko Sozietateen gaineko Zergan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan xedatutakoa errespetatuz; izan ere manu horretan ezarritako estatu-laguntzaren kontzeptutik guztiz baztertua geratu dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren neurri tributario orokorrak, gure lurraldeak autonomia osoa baitu, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-88/03 auzian —Portugalgo Errepublikak Europako Erkidegoetako Batzordearen aurka— 2006ko irailaren 6ko epaian xedatutakoaren ildotik. Eta hala egiaztatu du bai Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berak, 2008ko irailaren 11ko epaian (C-428/06 eta C-434/06 bitarteko auzi metatuak), bai estatu barruko auzitegiek, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak (2008ko abenduaren 22ko eta 2009ko apirilaren 19ko epaien bitartez) eta Auzitegi Gorenak (EAEko Auzitegi Nagusiaren epai horien aurka jarri ziren kasazio-errekurtsioak ezesteko 2012ko martxoaren 30eko eta apirilaren 3ko eta 4ko epaien bitartez).

Foru arau honen bidez erraztu egiten da aurreko araudia, eta, horrela, berrantolatu egin dira kontabilitateko emaitzari zerga-oinarria lortzeko egin beharreko zuzenketak ezartzen dituzten manuak. Gainera, zuzenketak sistematizatu dira, doikuntzen gaineko erregulazio argiagoa lortzeko eta araubide orokorrari ahal izan den neurrian erantsi zaizkion zerga-araubide bereziak nabarmen murriztea lortzeko.

Neutraltasunaren ikuspuntutik, zergapetze bikoitza ezabatze-ko tratamendua berrikusi behar izan da, eta apustu sendoa egin da salbuespenaren mekanismoaren alde. Gainera, orain arte indarra izan duten zerga-pizgarriak birplanteatu eta eguneratu egin behar izan dira, errealitateari egokitzeko eta ahalik eta eraginkorrenak izan daitezkeen lortzeko.

Zergapetze bikoitza ezabatzeari dagokionez, apustu sendoa egin da salbuespen mekanismoaren alde: jarraipen logiko eta zentzuzkoa ematen zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 19. artikuluan xedatutakoaren bitartez hasitako ildoari, baina errenta guztietara zabaldu da tratamendu hori —bai dibidenduetara bai partaidetzak eskualdatuz lortutako errentetara—, iturria atzerrian egon zein ez, betiere zenbait baldintza betetzen badira. Hala eginez, gaur egungo nazioarteko joerei eta nazioarteko erakundeen gomendioei jarraitzen zaie, eta, horrekin batera, aurrea hartzen zaie Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudian egin beharreko doikuntzei, ez dadin zergapetzerik gabeko egoerarik jazo. Horrenbestez, tratamendua aldatu zaie merkataritza-funts finantzarioari edo enpresen berrantolatze prozesuetan egiten den balore-eguneratzeari.

Arauketa berriarekin bat, nazioarteko zergapetze bikoitzean dauden kasurik arazotsuenak ezabatzea sustatzen da, hain zuzen ere, Espainiarekin nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko eta ihes fiskal prebenitzeko hitzarmenik sinatuta eta indarrean ez duten herrialdeen kasuak dira arazotsuenak.

Indarrean dauden zerga-pizgarriak berrantolatu eta eguneratzeari dagokionez, batez ere honako jarduketako ildotik hauen inguruan egin da Sozietateen gaineko Zergaren erreforma:

1. Enpresen kapitalizazioa sendotzeko neurriak ezartzea, funts propioen gehikuntzan oinarritutako egituren tratamendua hobetzeko eta zorpetzeko beharra murrizteko; neurrian artean ekintzailtze-entzako laguntza ere ezartzen da.

Gure enpresek behar duten kapitalizazioa lortzeko badute, beharrezkoa da haien funts propioak indartzeko neurri positiboak hartzea. Horrekin loturik, enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazio berri bat jaso da, eta hori da, hain zuzen, zerga-oinarria zehazteko zuzenketei dagokienez dauden berrikuntza nabarmenariko bat. Horretarako, orain dela gutxi Europar Batasuneko beste estatu batzuetan ezarritako neurriak hartu dira eredutzat, eta horrekin guztiarekin lortu nahi da, batetik, enpresei bermatzea erraz lortu ahal izango dituztela kapitalizazio egokia eta kaudimenez eta segurtasunez lehiazteko bidea emango dien pasiboaren egitura; bestetik, Sozietateen gaineko Zergan norberaren finantzaketak jasotzen duten tra-

Por otro lado, a estas alturas no pueden quedar dudas de la competencia de las instituciones forales para establecer un régimen tributario en el Impuesto sobre Sociedades diferente al vigente en territorio de régimen común desde la perspectiva del respeto a lo dispuesto en el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, al quedar completamente excluidas del concepto de ayuda de Estado establecido en el mencionado precepto las medidas tributarias generales del Territorio Histórico de Bizkaia, dado que el mismo goza de autonomía total en el sentido de lo dispuesto por el Tribunal de Justicia de la Unión Europea en su sentencia de 6 de septiembre de 2006, dictada en el asunto C-88/03 – República Portuguesa contra Comisión de las Comunidades Europeas, como ha acreditado tanto el propio Tribunal de Justicia de la Unión Europea en sentencia de 11 de septiembre de 2008 (asuntos acumulados C-428/06 a C-434/06) como los tribunales internos, es decir, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco mediante sentencias de 22 de diciembre de 2008 y 19 de abril de 2009, y el Tribunal Supremo a través de la desestimación de los recursos de casación interpuestos contra las mismas por medio de sentencias de 30 de marzo y de 3 y 4 de abril de 2012.

La presente Norma Foral se caracteriza por un incremento de la simplificación, con una reorganización de los preceptos dedicados a establecer correcciones al resultado contable para obtener la base imponible, sistematizando las correcciones para conseguir una regulación más clara de los ajustes y una significativa reducción de los regímenes tributarios especiales que, en la medida de lo posible, han sido incorporados al régimen general.

Desde el punto de vista de la neutralidad ha sido necesaria una revisión del tratamiento de la eliminación de la doble imposición, apostando decididamente por el mecanismo de exención, así como un replanteamiento y actualización de los incentivos fiscales vigentes hasta la fecha para adecuarlos a la realidad y conseguir que sean lo más eficaces posible.

Por lo que se refiere a la cuestión de la eliminación de la doble imposición, se apuesta decididamente por el mecanismo de exención, continuando de manera lógica y coherente con la línea que se inició a través de lo dispuesto en el artículo 19 de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades, pero extendiendo este tratamiento a todas las rentas, tanto dividendos como rentas derivadas de la transmisión de participaciones, sean de fuente extranjera o no, siempre que cumplan con determinados requisitos, siguiendo las tendencias internacionales actuales y las recomendaciones de los organismos internacionales, y previendo a la vez los ajustes precisos de la normativa del Impuesto sobre Sociedades para evitar que se produzcan situaciones de desimposición, modificando en consonancia el tratamiento del fondo de comercio financiero o de la actualización de valores en los procesos de reorganización empresarial.

En consonancia con la nueva regulación se potencia la eliminación de los supuestos de doble imposición internacional más problemáticos por afectar a países con los que España no tiene suscrito y en vigor un Convenio para evitar la doble imposición internacional y prevenir la evasión fiscal.

Desde la perspectiva del replanteamiento y actualización de los incentivos fiscales vigentes, se pueden destacar las siguientes líneas de actuación en las que se ha centrado la reforma del Impuesto sobre Sociedades:

1. Introducción de medidas para el fortalecimiento de la capitalización de las empresas, vinculadas a mejorar el tratamiento de las estructuras basadas en un incremento de los fondos propios y una reducción de la necesidad de acudir al endeudamiento, incluyendo el apoyo al emprendimiento.

La necesaria capitalización de nuestras empresas exige la adopción de medidas positivas tendentes a reforzar los fondos propios de las mismas. En relación con ello la inclusión de una nueva compensación para el fomento de la capitalización empresarial, es otra de las novedades destacadas en materia de correcciones para la determinación de la base imponible, inspirada en otras medidas recientemente introducidas en otros Estados miembros de la Unión Europea, y que pretende, por un lado, garantizar que las empresas tienen facilidades para conseguir una capitalización adecuada y una estructura de su pasivo que les permita competir con solvencia y seguridad, y por otro, disminuir la brecha existente en el

tamenduaren eta inoren finantzaketak jasotzen duenaren artea dagoen leizea ixtea. Hortaz, erakargarriagoa izango da enpresen funts propioak handitzea, eta lagundu egingo zaio, hala, enpresen azpi-kapitalizazio egoera murrizteari, benetan kaltegarriak baitira.

Era berean, aipatzekoa da kontabilitateko emaitzaren zuzenketa bat jaso dela emaitzaren aplikazioaren arloan, zeinaren bitartez tratamendu berriazkoa ezarri baita enpresek mozkinak nibelatzeko erreserba berezi batean egiten dituzten zuzkiduretarako. Tratamendu horrek bidea eman behar die enpresei berme handiagoekin aurre egiteko ziklo ekonomikoaren gorabeherei eta euren indar finantzarioa handitzeko, kanpoko kredituarekiko mendekotasuna arinduz, egiaztatu baita elementu hori funtsezkoa dela jarduerari eta enpleguari eutsi ahal izateko, azken urteotan bizi dugun egoera ekonomiko gogorrean.

2. Mikroenpresei laguntzea, enpresa-proiektuen ezarpena eta garapena errazteko; horretarako, haien kostu fiskal zuzenak eta zeharkakoak murriztuko dira eta mozkinak berrinbertitu ditzatela sustatuko da, ahalmena eta tamaina handitu ahal izan ditzaten, eta haien tributazioa sinplifikatuko da.

Ikuspegi horretatik nabarmentzekoa da tratamendu espezifiko bat ezarri dela mikroenpresentzat; horretarako, hauek hartuko dira halakotzat: 10 langile baino gutxiago eta 2 milioi eurotik beherako urteko eragiketa bolumena nahiz aktibo bolumena duten enpresak. Bada, halakoek foru arau honetan jasotzen duten babesak eta erraztasunek goitik behera aldatu dute orain arte zuten egoera.

Helburu horretan sakonduz, emaitzaren aplikazioaren arloan kontabilitateko emaitzaren zuzenketa aurkituko dugu, halaber, ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezi baten zuzkidurari dagokionez. Erreserba hori baliatzeko aukeren artean baditugu enpresa proiektuen garapena, hainbat enpresaburuk batera proiektuak abian jartzea eta business angel edo inbertsiogile informal pribatuen figura erakundetuz ekintzailtza babestea.

3. Patenteen eta ikerketa eta garapen arloko jarduketetatik datozen beste emaitza batzuen zerga-tratamendua indartzea.

Horren haritik, gure ekoizpen-ehunean kezka eragiten duen elementu nagusietariko bat da beste estatu batzuetan dihardutenen aldean lehiakortasun erlatiboa lortu beharra, kontuan izanik gure enpresek gero eta nazioartekotuago dagoen jokaleku globalizatuan egin behar dutela lan.

Horregatik, lehiakortasuna handitzeko gako nagusia ez da kostu operatiboak murriztea —nahiz eta faktore hori ere garrantzitsua izan litekeen—, baizik eta aukera izatea merkatuan balio erantsi handiko produktu edo zerbitzuak eskaintzeko, osagai teknologiko edo funtzional bereziren bat dutenak, lehiakideek eskaintzen dituzten produktuen aurrean bereiztearren.

Ikerketa eta garapenaren eta berrikuntza teknologikoaren arloko jardueren aldeko apustua, beraz, lehen mailako elementua da gogoeta horien artean, eta foru arau honetan sakonago landu da goian aipatutako 2007ko martxoaren 26ko 6/2007 Foru Arauak irekitako ildoak: orokortu egin da jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren eskubideak lagapen bidez ustiatzeko ezarritako tratamendua, eta, horrenbestez, zergadunak berak bere ikerketa eta garapen arloko jardueren emaitza bere ekoizpen-prozesuan erabil dezake.

Neurri horren arrakasta ikusirik, eta ikerketa eta berrikuntza arloko jarduera horien emaitzak Bizkaiko Lurralde Historikoan bertan ustiatu behar direla sinetsita, haren ertzak hobeto marraztu dira eta haren edukiak eguneratu dira oraingo beharrezkoak kontuan hartuz.

4. Zenbait gasturen kengarritasuna mugatzea.

Zenbait gasturen kengarritasuna murriztea helburu nagusi duten neurriak ezarri dira, zalantzan jartzekoa baita ea gastu horiek ekonomia-jardueraren garapenerako beharrezkoak diren.

Ildo horretatik, foru arau honetan eutsi egin zaie Zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen 2013ko otsailaren 27ko

tratamiento de la financiación propia respecto a la financiación ajena en el Impuesto sobre Sociedades, aumentando el atractivo para el incremento de los fondos propios de las empresas, y coadyuvando, por tanto, a la reducción de las indeseables situaciones de subcapitalización empresarial.

En el mismo sentido se puede citar la introducción de una corrección al resultado contable en materia de aplicación del resultado por el que se establece un tratamiento específico para las dotaciones que realicen las empresas a una reserva especial para nivelación de beneficios, que debe permitirles afrontar con mayores garantías las fluctuaciones del ciclo económico y aumentar su fortaleza financiera, reduciendo la dependencia del crédito externo, lo que se ha demostrado como un elemento esencial para mantener la actividad y el empleo en el difícil contexto económico que estamos viviendo en los últimos años.

2. Atención a las microempresas para facilitar la implantación y el desarrollo de proyectos empresariales, reduciendo sus costes fiscales directos e indirectos, fomentando la reinversión de sus beneficios para el aumento de su capacidad y dimensión y simplificando su tributación.

Desde esta perspectiva, se puede destacar el tratamiento específico otorgado a las microempresas, entendiéndose por tales aquellas que tengan menos de 10 de empleados y un volumen de operaciones anuales y de activos inferior a 2 millones de euros, para las que la simplificación y el apoyo recibido en esta Norma Foral suponen una verdadera revolución en relación a su situación anterior.

Profundizando en este objetivo encontramos también la corrección al resultado contable en materia de aplicación del resultado relativa a la dotación de una reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva, entre cuyas posibilidades de materialización se encuentran las relativas al desarrollo de proyectos empresariales, a la puesta en marcha de proyectos conjuntos entre diferentes empresarios y al apoyo al emprendimiento mediante la institucionalización de la figura de los inversores informales privados o bussiness angels.

3. Potenciar el tratamiento tributario de la explotación de patentes y otros resultados de las actuaciones de investigación y desarrollo.

En este sentido, uno de los principales elementos que preocupan en nuestro tejido productivo es el relativo a su competitividad relativa respecto a operadores de otros Estados, teniendo presente el escenario globalizado y cada vez más internacionalizado en el que nuestras empresas desenvuelven su labor.

Por ello, el incremento de competitividad no radica fundamentalmente en la reducción de sus costes operativos, aunque también pudiera ser éste un factor importante, sino en la posibilidad de ofrecer en el mercado productos o servicios de alto valor añadido y con un componente tecnológico o funcional diferencial respecto a los que se ofrecen por la competencia.

Por ello, la apuesta por las actividades de investigación y desarrollo e innovación tecnológica es un elemento de primera magnitud en este orden de consideraciones, y esta Norma Foral profundiza el camino iniciado por la ya citada Norma Foral 6/2007, de 26 de marzo, generalizando el tratamiento establecido para la explotación mediante cesión de los derechos de propiedad intelectual e industrial a los supuestos en los que es el propio contribuyente el que utiliza el resultado de sus actividades de investigación y desarrollo en su proceso productivo.

El éxito de esta medida y el convencimiento de que es preciso retener en el Territorio Histórico de Bizkaia la explotación de los resultados de esas actividades de investigación e innovación han permitido perfilar mejor sus contornos y actualizar su contenido a las necesidades del presente.

4. Limitación de la deducibilidad de determinados gastos.

La adopción de medidas centradas fundamentalmente en la limitación de la deducibilidad de ciertos gastos, cuya consideración como necesarios para el desarrollo de la actividad económica resulta altamente cuestionable.

En este sentido, la Norma Foral es continuista de las modificaciones que se realizaron para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2013 por parte de la Norma Foral 3/2013,

3/2013 Foru Arauak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako egin dituen aldaketei. Hain zuzen ere, foru arau horretan ezarritako arauak zehaztu egiten dute zein kasutan joko diren kengarritzat zenbait gastu, sarrerekin korrelazio ez oso argia dutenak; beraz, jarraibideak ezarri behar dira zehaztasunez erabaki ahal izateko zein diren gastu kengarriak, sarrerekiko korrelazioa dutenak, eta zein ez.

Batez ere, ordezkartza-gastuak edo hornitzaile eta bezeroentzako opariak noiz diren kengarriak eta noiz ez zehazten dituzten arauak eutsi zaie, gastu horien helburua eta xedea kontrolatu ahal izateko bitartekoak barne; eta hasitako ahaleginean jarraitu da zehatz-mehatz argitzeko noiz jo behar diren ibilgailuak, itsasontziak eta aireontziak zergadunen ekonomia-jarduerari bakarrik afektatutzat eta noiz ez, haiek eskuratu eta erabiltzeko gastuen kengarritasuna zehaztearren. Ekonomia-jardueretarako eta helburu pribatuetarako aldi berean erabiltzen diren ibilgailuen %50 egotzi behar dela dioen araua mantendu da, eta zehaztu egin da, halaber, zein kasutan ez diren jarduerari afektatutzat joko aipatutako ondare-elementu horiek, eta, horrenbestez, noiz ez diren kengarritzat joko haiekin zerikusia duten gastuak.

Horrez gainera, ordea, automobil eta antzekoei dagokienez ere foru arau honetan eutsi egin zaio zentzuzkotzat jotzen den gehieneko erosketa-prezioari (25.000 euro), eta erosketa prezio hori gainditzen ez duten ibilgailuen gastuak bakarrik izango dira kengarriak, edo, gehieneko prezioa gainditzen badute, zenbateko horri dagokion zatia izango da kengarria, bai erosketa-gastuei bai ibilgailua erabiltzearekin zerikusia duten gainerako gastuei dagokienez. Beraz, prezio handiagoko ibilgailuak erosten dituzten zergadunen kontura izango da halakoak erosteak eragiten duen gastu-gehikuntza.

Azken batean, gai hori dela eta, azpimarratu behar dugu ahalgin handia egin dela agerian uzteko zein kasutan ezkututzen den, sozietate baten jabetzaren mozorropean, zergadunen erabilera pribatu soilerako diren horrelako ondare-elementuen titulartasuna. Hala, mekanismoak ezarri dira aktibo horiekin zerikusia duten gastuak kengarriak izan ez daitezten, eta trabak ezarri dira zergadunen ondare pertsonala ez dadin haien jabetzako pertsona juridikoen baitan kokatu, zergadunari zerga-karga arintzeko eta errentaren aplikazioa baino ez dena gastu kengarritzat aurkezteko.

Ahalegin hori areagotu egin da Zergaren araubide orokorrari atxikita egon arren tratamendu berezia hartzeko moduko soslai bereizgarria duten ondare-sozietateen tratamendu berriarekin. Tratamendu horretan sartu dira zergadunek errenta pasiboen iturri diren ondasun eta eskubideen ukantza-sozietateen baitan koka zezaketen kasuak.

Zenbait gasturen kengarritasuna mugatzearen arlo honetan badago nabarmendu beharreko azken elementu bat: entitateen azpi-kapitalizazioa saihesten saiatzen den erregela berriro egituratu da, hots, haren aplikazioa orokortu da, Europar Batasunaren Funzionamenduari buruzko Tratatuan aitortutako oinarriko askatasunekin erabat bateragarria izan dadin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko zerga-oinarriak higatu ez daitezten entitate lotuen mesedetan. Bitarteko hori egokiagoa da, eta neurrikoagoa, entitateen palanka-efektuaren eta haien kapitalizazio propioaren arteko orekan eragiteko.

Tamaina handia ez duten enpresentzat edo beste entitate edo pertsona lotu batzuekin zorpetze ordaindua dutenentzat arau horren aplikazioak ez diezaien eragin kudeaketa-zama astunegirik, gutxieneko atalase bat ezarri da, arau hori aplikatzeko aukera mugatzen duena.

5. Araubide bereziak berrikustea. Zergaren sinplifikazioaren esparruan, araubide bereziak mugatzeko prozesuari ekin zaio. Hala behar izan denean, haietariko batzuk araubide orokorrean sartu dira,

de 27 de febrero, por la que se aprueban medidas adicionales para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y otras modificaciones tributarias, que, en este sentido, ya estableció reglas que delimitaban los supuestos en los que van a considerarse deducibles determinados gastos cuya correlación con los ingresos puede desenvolverse en unos términos menos claros, por lo que es preciso establecer una serie de pautas que permitan determinar con precisión qué gastos están correlacionados con los ingresos y tienen carácter deducible y cuáles no.

En particular, se mantiene la regulación de los supuestos en los que los gastos de representación o las atenciones con proveedores o clientes tienen carácter deducible y en cuáles no, incluyendo mecanismos que permitan el control del destino y finalidad de los mencionados gastos, y se continúa el esfuerzo iniciado para delimitar cuándo los vehículos, embarcaciones y aeronaves deben considerarse exclusivamente afectos a las actividades económicas de los contribuyentes y cuándo no, a los efectos de establecer la deducibilidad de los gastos relativos a la adquisición y utilización de los mismos, manteniendo la regla de imputación al 50 por 100 de los vehículos que sean utilizados simultáneamente para la realización de actividades económicas y para finalidades privadas, especificando igualmente los supuestos en los que no se van a considerar afectos los citados elementos patrimoniales ni consiguientemente deducibles los gastos relacionados con ellos.

Pero además, respecto a los vehículos de turismo y similares, esta Norma Foral mantiene también el importe máximo de precio de adquisición de los mismos que se entiende como razonable, fijado en 25.000 euros, y por lo tanto, solamente van a ser deducibles los gastos relativos a vehículos que no superen ese precio de adquisición, o si lo superan, lo serán en la parte proporcional hasta ese importe, tanto en relación con los gastos relativos a la adquisición como en los gastos relacionados con la utilización del vehículo, y por lo tanto, los contribuyentes que adquieran vehículos de superior precio asumirán a su costa el incremento de gastos que ello implica.

En último extremo, respecto a esta cuestión, debemos destacar que se hace un esfuerzo importante por delimitar los supuestos en los que se encubre, bajo la apariencia de pertenencia a una sociedad, la titularidad de este tipo de elementos patrimoniales de exclusivo uso privado por parte de los contribuyentes, estableciendo mecanismos para impedir la deducibilidad de los gastos relacionados con esos activos y poniendo coto a que el patrimonio personal de los contribuyentes se residencia en personas jurídicas de su propiedad, a los efectos de reducir la carga tributaria que deben soportar y de hacer aparecer como gastos deducibles lo que no es sino aplicación de renta.

Este esfuerzo se ha visto profundizado con el nuevo tratamiento de las sociedades patrimoniales que, aunque incorporadas al régimen general del Impuesto, mantienen unos contornos individualizables que permiten otorgarles un tratamiento específico, y en el que se han incluido aquellos supuestos en los que los contribuyentes podían residenciar en sociedades la tenencia de bienes y derechos generadores de rentas pasivas.

Un último elemento que conviene destacar en el ámbito de la limitación de la deducibilidad de determinados gastos lo supone la nueva articulación de la regla que trata de evitar la subcapitalización de las entidades, en la medida en que se generaliza su aplicación para hacerla plenamente compatible con las libertades fundamentales reconocidas en el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea y para evitar que se produzca una erosión de las bases imponibles sometidas al Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Bizkaia en beneficio de entidades vinculadas, lo que supone un medio que se entiende como más adecuado y proporcionado para incidir sobre el equilibrio entre el apalancamiento de las entidades y su capitalización propia.

Para evitar que la aplicación de esta regla sea una carga demasiado costosa de gestionar para las empresas que no tienen una gran dimensión o para aquellas otras en situación de endeudamiento remunerado con otras personas o entidades vinculadas, se establece un umbral mínimo que enerva la posibilidad de aplicación de esta regulación.

5. Revisión de regímenes especiales. En el marco de simplificación del impuesto, se ha acometido un proceso de limitación de los regímenes especiales, procediendo cuando ha sido nece-

beharrezko moldaketak eginda, eta haiek aplikatzeko baldintzak birformulatu egin dira; araubide berezi batzuk kendu egin dira, jada ez dituztelako betetzen sorreran ezarri zitzaizkien helburuak edo bilakaera ekonomiko orokorrak aurrea hartu dielako.

Horregatik, araubide orokorrean sartu dira enpresa txiki eta ertainen araubide berezia, ondare-sozietateena, meatzaritzarena, hidrokarburoen ikerketa eta ustiapenarena, nazioarteko zerga-gardentasunarena, finantza-errentamenduko zenbait kontraturarena eta salbuespen partziala duten entitateena.

Beste alde batetik, mantendu eta eguneratu egin dira itsas garraioko enpresen araubide berezia, ekonomia-intereseko elkar-tzeena eta aldi baterako enpresa-elkarteeena, inbertsio kolektibo-erakundeena, zerga-baterakuntzarena eta enpresen berrantolaketarena.

Arreta berezia merezi du higiezinaren errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen araubide berezi berriak, jarraipena ematen baitie etxebizitzaren errentamenduan diharduten entitateen lehengo araubide bereziak gure herrian alokairuaren merkaturatu indarberritzeko egindako ahaleginei. Izan ere, merkatu hori oraindik ere txikiegia da gure ingurune hurbileneko herrialde aurreratuagoen aldean.

Kendu egin dira, azkenik, lurraldeko industria-garapenerako sozietateen araubide berezia, enpresak sustatzeko sozietateena, Higiezinaren Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuena eta atzerriko baloreak edukitzeko entitateena, kasu horietan guztietan egokitzat jo delako araubide berezia kentzea, bai Zergaren sinplifikazioan sakontzeko, bai eta haren egitura egungo beharrezan egokitzeko ere.

Azpimarratu behar dira, aurrekoari dagokionez, Zuzenbide iragankorrean bai enpresak sustatzeko sozietateentzat bai atzerriko baloreak edukitzeko entitateentzat aurreikusten diren arauak, bai eta foru arau honetako xedapen gehigarrietan aurreikusita dauden berriazko tratamendu batzuk ere, araubide erkideko arauen pean dauden Higiezinaren Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatueta baskide bizkaitarrentzat edo zenbait balore edukitzeko entitateentzat ezarritakoak, hain zuzen ere. Tratamendu horiek kanpoko inbertsioa eta gure enpresen nazioartekotzea garatzearen ordeko aukera eskaini nahi dute, baina araubidea haztatuz kasu horietan zerga-bilketak izan behar dituen berezitasunekin.

6. Kenkariak berrikustea. Zenbait kenkari eustea erabaki da eraginkortasun handiko pizgarriak direlako, garrantzi handia dutelako ekoizpen-ehunaren iraupenerako eta lagundu egiten dutelako ekonomia-jardueran indarberritzeko eta enplegua sortzeko helburuak lortzen. Kendu egin dira, aldiz, aplikazio praktikoa urria edo pizgarri moduan eraginkortasun mugatua zuten kenkariak.

Oraingo egoeran zerga-neurrien bidezko bultzada publikoa merezi izateko modukotzat jotzen diren enpresa-portaeren bizkarrezurra osatzen duten lau kenkariak mantendu dira, alegia, aktibo ez-korrante berriak erostearen ondoriozko kenkariak, ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko gastuei dagozkienak, garapen iraunkorarekin eta ingurumenaren kontserbazio eta hobekuntzarekin zerikusia dutenak eta enplegu egonkorraren sorkuntzarekin zerikusia dutenak. Horixe da botere publikoek egungo egoera gainditzeko ezarri duten lehentasunetariko bat.

Kenkari horietan guztietan teknikoki hobetu dira lehengo araudian zeuden kontzeptuak, eta erregela berriak ezarri dira, zergen bidezko pizgarriak emateko egindako ahaleginak eraginkortasunik handiena eta emaitzarik oparoenak lortu ahal izan ditzaan.

Gainerako kenkariak kendu egin dira, ez zirelako pizgarri eraginkorak, edo arazoak sor zitzaizketelako ukitutako zergadunen arteko ekitate horizontalaren ikuspegitik.

Azkenik, foru arauak euren zerga-tratamendu berriazkoa mantendu die merkataritza-funts finantzarioari, merkataritza-funts esplizituari (erosketa bidezkoa edo enpresak berregituratzeko eragiketen ondoriozkoa) eta balio-bizitza mugagabea duten beste aktibo ez-material batzuei, baina horrelako aktiboaren zerga-tra-

sario, a la incorporación al régimen general, con las debidas adaptaciones, de algunos de ellos, así como a reformular las condiciones de su aplicación, eliminando aquellos regímenes especiales que se ha considerado preciso por no responder en la actualidad a las finalidades para las que fueron creados o por haber sido superados por la evolución económica general.

Por ello, han sido incorporados al régimen general los regímenes especiales de las pequeñas y medianas empresas, las sociedades patrimoniales, la minería, la investigación y explotación de hidrocarburos, la transparencia fiscal internacional, el de determinados contratos de arrendamiento financiero o el de las entidades parcialmente exentas.

Por otro lado, se mantienen y actualizan los regímenes especiales de las empresas de transporte marítimo, las agrupaciones de interés económico y uniones temporales de empresas, las instituciones de inversión colectiva, la consolidación fiscal y las reorganizaciones empresariales.

Merece especial atención el nuevo régimen especial de las entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles, que suponen la continuidad de los esfuerzos realizados por el anterior régimen especial de entidades dedicadas al arrendamiento de viviendas para dinamizar el mercado de alquiler en nuestro país, que sigue poniendo de manifiesto una insuficiencia de dimensión en relación con los países más avanzados de nuestro entorno cercano.

Por último, han sido eliminados los regímenes especiales de las sociedades de desarrollo industrial regional, de las sociedades de promoción de empresas, de las Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario y de las entidades de tenencia de valores extranjeros, pues en todos esos supuestos se ha considerado oportuna su eliminación tanto para profundizar la simplificación del Impuesto como para adecuar su estructura a las necesidades presentes.

Hay que destacar al respecto las normas de Derecho transitorio que se prevén tanto para las sociedades de promoción de empresas como para las entidades de tenencia de valores extranjeros, así como los tratamientos específicos que se prevén en disposiciones adicionales de esta Norma Foral para los socios vizcaínos de Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario sometidas a la normativa de territorio de régimen común o para las entidades de tenencia de determinados valores, que pretenden ofrecer una alternativa al desarrollo de la inversión en el exterior y de la internacionalización de nuestras empresas, pero ponderando el régimen con las necesarias particularidades de recaudación tributaria en esos supuestos.

6. Revisión de las deducciones. Se ha acordado el mantenimiento de determinadas deducciones por su gran eficacia incentivadora y su importancia para el mantenimiento del tejido productivo y su contribución a los objetivos de reactivación de la actividad económica y generación de empleo, eliminando aquellas otras de escasa aplicación práctica o de la limitada eficacia incentivadora.

Permanecen las cuatro deducciones que conforman la columna vertebral de los comportamientos empresariales que se consideran merecedores de impulso público por vía fiscal en la actual coyuntura, a saber, las relativas a la adquisición de activos no corrientes nuevos, a los gastos de investigación y desarrollo e innovación tecnológica, a los relacionados con el desarrollo sostenible y la conservación y mejora del medio ambiente y la creación de empleo estable, como unas de las prioridades que los poderes públicos se han marcado para superar la actual coyuntura.

En todas esas deducciones se mejoran técnicamente los conceptos que existían en la regulación anterior y se establecen nuevas reglas que permitan la máxima efectividad y retorno de los esfuerzos de incentivación por vía tributaria.

El resto de deducciones han sido eliminadas por la escasa eficacia incentivadora o por la problemática que podrían plantear desde una perspectiva de equidad horizontal entre los contribuyentes afectados.

Por último, la Norma Foral mantiene el tratamiento tributario específico del fondo de comercio financiero, el fondo de comercio explícito (bien por adquisición o como consecuencia de una operación de reestructuración empresarial), y el de otros activos intangibles de vida útil indefinida, si bien, se modula la intensidad del tratamiento

tamenduaren intentsitatea aldatu du, bost urtetik zortzira luzatu baitu hura aplikatu ahal izateko gutxieneko epea; horrenbestez, zerga-pizgarriaren eta Zerga Administrazioak egungo egoerari aurre egiteko beharrezkoa duen zerga-bilketaren arteko oreka berria lortu da. Horrek bidea ematen digu Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru araudiaren ezaugarri garrantzitsuenetako batzuei eusteko.

Zerga-karga modulatzearen aldeko joeraren ildotik jarraituta denbora-muga bat ezarri da zerga-oinarri negatiboak hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko eta kuota nahikoa izan ez eta aplikatu gabe uzten diren kenkariak aplikatzeko: hamabost urte gehienez.

Arau berritzaile bat ere ezarri da: kuota efektiboa ezin da izan gutxieneko tributazio bat baino gutxiago, hau da, ekitaldiko kenkariak aplikatuta zergadunak jasaten duen zerga-karga ezin da murriztu kopuru jakin batetik behera. Muga horiez zaie aplikatuko ikerketa eta garapeneko jardueri, ez eta berrikuntza teknologikoko jardueri ere, estrategikoak baitira ekonomia indarberritzeko eta gizartea aurreratzeko.

Foru arau honek 134 artikulua ditu, 10 titulutan banatuta, eta jarraian 21 xedapen gehigarri, 17 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen. Hona hemen aurkibidea:

7. Ez dira kengarriak izango kengarriak ez diren horniduren balioak eguneratzearen ondorioz sortzen diren doikuntzek eragindako finantza-gastuak.

27. artikulua.—Gizarte-aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpenak

1. Kengarriak izango dira bai Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak arautzen dituen pentsio-planen sustatzaileek egindako ekarpenak (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), bai bazkide babesleek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen gizarte-aurreikuspeneko planei egindako ekarpenak (plan horiek Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeen 2012ko otsailaren 23ko 5/2012 Legean arautzen dira), bai eta enpresen gizarte-aurreikuspeneko planei egindakoak ere.

Ekarpen horiek partaide, aseguratu edo bazkide oso edo arrunt bakoitzari egotziko zaizkio, bakoitzari dagokion heinean, hauek izan ezik: Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 5.3.c) artikuluan ezarritakoa aplikatuz pentsio-planari egindako aparteko ekarpenak.

2. Era berean, kengarriak izango dira pentsio-planen antzeko kontingentziaak estaltzeko kontribuzioak, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

- Prestazioak, zergei dagokienez, haiekin lotuta dauden pertsonen egozteak.
- Etorkezuneko prestazioak hartzeko eskubidea era ezeztazinean eskualdatzea.
- Ekarpen horien oinarri diren baliabideen titulartasuna eta kudeaketa eskualdatzea.

3. Halaber, kengarriak izango dira Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan (enpleguko pentsio-funtzen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoan) ezarritako enpresa sustatzaileek egindako ekarpenak, baldin eta aurreko zenbakiko a), b) eta c) letretan adierazitako betekizunak betetzen badira eta Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8.6 artikuluan azaltzen diren kontingentziak estaltzeko badira.

culo 9 de la Ley 1/1994, de 11 de marzo, sobre Régimen Jurídico de las Sociedades de Garantía Recíproca. Las dotaciones que excedan las cuantías obligatorias serán deducibles en un 75 por 100.

No se integrarán en la base imponible las subvenciones otorgadas por las Administraciones públicas a las sociedades de garantía recíproca ni las rentas que se deriven de dichas subvenciones, siempre que unas y otras se destinen al fondo de provisiones técnicas. Lo previsto en este apartado también se aplicará a las sociedades de reafianzamiento en cuanto a las actividades que de acuerdo con lo previsto en el artículo 11 de la Ley 1/1994, sobre Régimen Jurídico de las Sociedades de Garantía Recíproca, han de integrar necesariamente su objeto social.

6. Los gastos inherentes a los riesgos derivados de garantías de reparación y revisión, serán deducibles hasta el importe necesario para determinar un saldo de la provisión no superior al resultado de aplicar a las ventas con garantías vivas a la conclusión del período impositivo el porcentaje determinado por la proporción en que se hubieran hallado los gastos realizados para hacer frente a las garantías habidas en el período impositivo y en los dos anteriores en relación a las ventas con garantías realizadas en dichos períodos impositivos.

Lo dispuesto en el párrafo anterior también se aplicará a las dotaciones para la cobertura de gastos accesorios por devoluciones de ventas.

En los supuestos de entidades de nueva creación, de entidades que inicien nuevas actividades o reinicien de nuevo sus actividades sin que hayan transcurrido tres ejercicios, el porcentaje fijado en el párrafo primero de este apartado será el que resulte de la proporción existente entre los gastos y las ventas imputables del ejercicio o ejercicios en los cuales la entidad haya operado.

7. No serán deducibles los gastos financieros derivados de los ajustes que surjan por las actualizaciones de los valores de las provisiones no deducibles.

Artículo 27.—Aportaciones a sistemas de previsión social

1. Serán deducibles las contribuciones de los promotores de planes de pensiones regulados en el Texto Refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2002, de 29 de noviembre, y las aportaciones realizadas por los socios protectores a los planes de previsión social de las Entidades de Previsión Social Voluntaria regulados en la Ley 5/2012, de 23 de febrero, sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria, así como las realizadas a planes de previsión social empresarial.

Dichas contribuciones o aportaciones se imputarán a cada partícipe, asegurado o socio de número u ordinario en la parte correspondiente, salvo las realizadas a planes de pensiones de manera extraordinaria por aplicación de la letra c) del apartado 3 del artículo 5 del citado Texto Refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones.

2. Serán igualmente deducibles las contribuciones para la cobertura de contingencias análogas a las de los planes de pensiones, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

- Que sean imputadas fiscalmente a las personas a quienes se vinculen las prestaciones.
- Que se transmita de forma irrevocable el derecho a la percepción de las prestaciones futuras.
- Que se transmita la titularidad y la gestión de los recursos en que consistan dichas contribuciones.

3. Asimismo, serán deducibles las contribuciones efectuadas por las empresas promotoras previstas en la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo, siempre que se cumplan los requisitos regulados en las letras a), b) y c) del apartado anterior, y las contingencias cubiertas sean las previstas en el apartado 6 del artículo 8 del Texto Refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones.

28. artikulua.—Agortze-faktorea meatzaritzako jardueretan

1. Meatzeei buruzko 1973ko uztailaren 21eko 22/1973 Legearen babesean baliabide jakin batzuen aprobetxamendua egiten duten zergadunek zerga-oinarria kalkulatzeko kengarriztat jo ditzakete artikuluko honetako hurrengo zenbakian aipatzen diren jarduerak egiteko agortze-faktore gisa erabiltzen dituzten diru-kopuruak. Hona baliabideak:

a) Meatzeei buruzko 1973ko uztailaren 21eko 22/1973 Legeko 3. artikuluko C atalean eta Meatzeei buruzko Legea aldatzen duen 1980ko azaroaren 5eko 54/1980 Legeak sortutako D atalean sailkatutako baliabideak.

b) Aipatutako artikulua B atalean sailkatutako jatorri ez-naturaleko hobietatik lortutako baliabideak, baldin eta berreskuratutako edo eraldatutako produktuak C atalean edo Meatzeei buruzko Legea aldatzen duen 1980ko azaroaren 5eko 54/1980 Legeak sortutako D atalean sailkatuta badaude.

Agortze-faktorea ez da handiagoa izango zenbaki honetan aipatutako aprobetxamenduei zerga-oinarrian dagokien zatiaren %25 baino.

Hornikuntza Plan Nazionalean lehentasunezkoztat jotako lehengai mineral bat edo batzuk ustiatzen dituzten entitateek aukera izango dute, ordea, baliabide horiei dagokien jarduerako agortze-faktorea saldutako mineralen balioaren %12ra artekoa izateko; horretarako, enpresek gero tratatu edo eraldatzeko kontsumitzen dituztenak ere halakotzat hartuko dira. Kasu horretan, agortze-faktorerako zuzkidura ezingo da handiagoa izan aprobetxamendu horietatik jasotako substantzien nahiz substantzia horiek eta haietatik eratorritako beste batzuk dauzkaten produktuen tratamendu, eraldaketa, merkaturatze eta salmentari dagokien zerga-oinarriaren zatia baino.

2. Agortze-faktorea dela-eta zerga-oinarritik kentzen diren zenbatekoak jarraian zerrendatutako diren meatzaritzako jarduerekin zuzenean lotutako gastu, lan eta ibilgetuetan bakarrik inbertitu ahal izango dira; hauetan, hain zuzen:

a) Beste mineral-hobi batzuen eta bestelako baliabide geologikoen esplorazioa eta ikerketa.

b) Lortutako produktuen errekupeazioa edo kalitatea hobetzeko ikerketak.

c) Jarduera zehatz batzuetara soilik dedikatzen diren enpresetako kapital soziala ordezkatzen duten baloreak harpidetzea edo eskuratzea, baldin eta baloreok hamar urtez jarraian mantentzen badira entitatearen ondarean. Horretarako, hauek dira jarduera zehatzok: batetik, zenbaki honetako a), b) eta d) letretan aipatzen diren jarduerak; bestetik, Meatzeei buruzko 1973ko uztailaren 21eko 22/1973 Legeko 3. artikuluko C ataleko eta Meatzeei buruzko Legea aldatzen duen 1980ko azaroaren 5eko 54/1980 Legeak sortutako D ataleko mineral-hobiak eta gainerako baliabide geologikoak ustiatzeko jarduerak (D atal hori mineral erradiaktiboei, baliabide geotermikoei, harri bituminosoei eta atal horretan sar daitezkeen interes energetikoko beste mineral-hobi eta baliabide geologikoei dagokie).

Akzioak edo partaidetzak harpidetu zaizkien enpresek, harpidetzaren ostean, aipatutakoez besteko jarduerak egiten badituzte, zergadunak artikuluko honetako 4. zenbakian aipatzen den likidazioa egin beharko du; bestela, harpidetza horren zenbatekoa berrinbertitu beharko du, betekizunok betetzen dituzten beste inbertsio batzuetan. Berrinbertsioa c) letra honetan aipatutako baloreetan eginez gero, hamar urteko epea betetzeko falta den zatian mantendu behar dira.

d) Ustiapenean dagoen hobiaren erreserbari buruzko eza-guera hobe lortzeko ikerketa.

e) Enpresako meatzaritza-jardueretan erabili ahal diren ikerketa-laborategiak eta -ekipamenduak.

f) 2009ko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan ezarritako leheneratze-planetan sartzen diren jarduerak (errege-dekretu hori erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta eta meatzeetako jarduerak erasandako lekuak babestu eta leheneratzeari buruzkoa da).

Artículo 28.—Factor de agotamiento en actividades de minería

1. Pueden considerarse deducibles para la determinación de la base imponible las cantidades que destinen, en concepto de factor de agotamiento, a la realización de las actividades a que se refiere el apartado siguiente de este artículo, los contribuyentes que realicen, al amparo de la Ley 22/1973, de 21 de julio, de Minas, el aprovechamiento de uno o varios de los siguientes recursos:

a) Los comprendidos en la sección C del artículo 3 de la Ley 22/1973, de 21 de julio, de Minas, y en la sección D creada por la Ley 54/1980, de 5 de noviembre, que modifica la Ley de Minas.

b) Los obtenidos a partir de yacimientos de origen no natural pertenecientes a la sección B del referido artículo, siempre que los productos recuperados o transformados se hallen clasificados en la sección C o en la sección D creada por la Ley 54/1980, de 5 de noviembre, que modifica la Ley de Minas.

El factor de agotamiento no excederá del 25 por 100 de la parte de base imponible correspondiente a los aprovechamientos señalados en este apartado.

No obstante, las entidades que realicen los aprovechamientos de una o varias materias primas minerales declaradas prioritarias en el Plan Nacional de Abastecimiento, podrán optar, en la actividad referente a estos recursos, por que el factor de agotamiento sea de hasta el 12 por 100 del valor de los minerales vendidos, considerándose también como tales los consumidos por las mismas empresas para su posterior tratamiento o transformación. En este caso, la dotación para el factor de agotamiento no podrá ser superior a la parte de base imponible correspondiente al tratamiento, transformación, comercialización y venta de las sustancias obtenidas de los aprovechamientos señalados y de los productos que incorporen dichas sustancias y otras derivadas de las mismas.

2. Las cantidades que se deduzcan para la determinación de la base imponible en concepto de factor de agotamiento sólo podrán ser invertidas en los gastos, trabajos e inmovilizados directamente relacionados con las actividades mineras que a continuación se indican:

a) Exploración e investigación de nuevos yacimientos minerales y demás recursos geológicos.

b) Investigación que permita mejorar la recuperación o calidad de los productos obtenidos.

c) Suscripción o adquisición de valores representativos del capital social de empresas dedicadas exclusivamente a las actividades referidas en las letras a), b) y d) de este apartado, así como a la explotación de yacimientos minerales y demás recursos geológicos de la sección C del artículo 3 de la Ley 22/1973, de 21 de julio, de Minas, y en la Sección D, creada por la Ley 54/1980, de 5 de noviembre, que modifica la Ley de Minas, en lo relativo a minerales radiactivos, recursos geotérmicos, rocas bituminosas y cualesquiera otros yacimientos minerales o recursos geológicos de interés energético que se acuerde incluir en esta Sección, siempre que, en ambos casos, los valores se mantengan ininterrumpidamente en el patrimonio de la entidad por un plazo de diez años.

En el caso de que las empresas de las que se suscribieron las acciones o participaciones, con posterioridad a la suscripción, realizaran actividades diferentes a las mencionadas, el contribuyente deberá realizar la liquidación a que se refiere el apartado 4 de este artículo, o bien, reinvertir el importe correspondiente a aquella suscripción, en otras inversiones que cumplan los requisitos. Si la nueva reinversión se hiciera en valores de los mencionados en esta letra c), éstos deberán mantenerse durante el período que restase para completar el plazo de los diez años.

d) Investigación que permita obtener un mejor conocimiento de la reserva del yacimiento en explotación.

e) Laboratorios y equipos de investigación aplicables a las actividades mineras de la empresa.

f) Actuaciones comprendidas en los planes de restauración previstos en el Real Decreto 975/2009, de 12 de junio, sobre gestión de los residuos de las industrias extractivas y de protección y rehabilitación del espacio afectado por actividades mineras.

3. Zergaldi bakoitzean zerga-oinarria zehazterakoan agortze-faktore gisa kentzen den zenbatekoa hamar urteko epean inbertitu beharko da, zergaldia amaitzen denetik hasita. Inbertsio hori egindakotzat joko da aurreko zenbakian aipatutako gastuak edo lanak egindakotan edo ibilgetua jasotakoan.

Horretaz gainera, zergaldi bakoitzean entitatearen erreserben kontuei gehitu beharko zaie agortze-faktore gisa zerga-oinarria kalkulatzeko zenbatekoa. Eta erreserba horiek inbertsioak amortizatzen diren neurrian soilik erabili ahal izango dira askatasunez, edo, bestela, funts horiekin finantzaturako akzio edo partaidetzak harpidetu zirenetik hamar urte pasatutakoan.

Agortze-faktorea gauzaten deneko inbertsioei ez zaizkie aplikatuko foru arau honetako V. tituluko III. kapituluaren erregulatutako kenkariak.

Zergadunek memorian azaldu beharko dituzte artikuluan honetan xedatutakoaren aplikazioari buruzko inguruabar guztiak.

4. Hamar urteko epea pasatzen bada inbertitu beharreko zenbatekoa inbertitu gabe, edo epe horren barruan modu desegokian inbertitzen bada, zenbateko bera sartuko da zerga-oinarrian aldi horren amaieran bukatuta dagoen zergaldian edo inbertsio desegokia egin den zergaldian, eta berandutze-interesak gehituko zaizkio kuotari.

Modu berean jokatu da entitatea likidatzen den kasuetan, agortze-faktoretik aplikatu gabe dagoen zenbatekoari dagokionez, bai eta mea-ustiategi osoa edo zati bat lagatzen edo besterentzen denean nahiz bat-egitea, zatiketa, aktibo eta pasibo osoaren lagapena edo jarduera-adarraren ekarpena egiten den kasuetan ere, salbu eta ondoriozko entitateak, meatzaritzako jarduera egiten jarraitzen duenak, bere gain hartzen badu entitate eskualdatzaileak izandako onura sendotzeko betekizunak bete beharra, lehenengo entitateak zituen baldintza berberekin.

29. artikulua.—Agortze-faktorea hidrokarburoak esploratu, ikertu eta ustiatzeko jardueretan

1. Zerga-oinarria kalkulatzeko kengarritzat jo daitezke artikuluan honetako hurrengo zenbakian aipatzen diren jarduerak egiteko agortze-faktore gisa erabiltzen diren zenbatekoak, baldin eta jarduera horiek egiten dituzten zergadunen xede sozial bakarra hau bada: Estatuaren lurraldean eta jurisdikziopeko uretako nahiz Espainiako Erresumaren subiranotasunpeko itsas hondoretan dauden hidrokarburo naturalen (likidoak edo gaseosoak) hobiak eta lurpeko bilguneak esploratu, ikertu eta ustiatzea, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko 1998ko urriaren 7ko 34/1998 Legearen ezarritako moduan, eta, jarduera horien osagarri gisa, ateratako produktuak garraiatu, biltegitratu, araztu eta saltzea.

Zerga-oinarria kalkulatzeko agortze-faktorea dela-eta aplikatzen den kenkaria hurrengo bietako edozein izan daiteke, entitateak aukeratzen duena:

a) Hidrokarburoen salmentaren eta biltegitratze-zerbitzuak emateagatik kontraprestazioaren %25, murrizketa honen aurreko zerga-oinarriaren %50eko mugarekin.

b) Murrizketa honen aurreko zerga-oinarriaren %40.

2. Zerga-oinarria zehaztean agortze-faktorea dela-eta kentzen diren zenbatekoak sozietatearen xedeko jardueretan bakarrik inbertitu ahal izango dira, bai eta eremuak bertan behera uzteko eta itsas plataformak eraisteko jardueretan ere. Inbertsio hori hamar urteko epean egin behar da, agortze-faktorea zerga-oinarria zehazterakoan kendu den zergaldia amaitzen denetik hasita. Are, kenkaria aplikatzen den lehenengo zergaldiaren aurreko lau urtetan egindako esplorazio-, ikerketa- eta ustiapen-jardueretan inbertitutzat ere jo ahal izango dira.

3. El importe que en concepto de factor de agotamiento se deduzca para la determinación de la base imponible en cada período impositivo deberá invertirse en el plazo de diez años, contados a partir de la conclusión del mismo, entendiéndose efectuada la inversión cuando se hayan realizado los gastos o trabajos a que se refiere el apartado anterior o recibido el inmovilizado.

Adicionalmente, en cada período impositivo deberán incrementarse las cuentas de reservas de la entidad en el importe que se deduzca para la determinación de la base imponible en concepto de factor de agotamiento, reservas de las que sólo podrá disponerse libremente en la medida en que se vayan amortizando las inversiones, o, una vez transcurridos diez años desde que se suscribieron las correspondientes acciones o participaciones financiadas con dichos fondos.

Las inversiones en las que se materialice el factor de agotamiento no podrán disfrutar de las deducciones reguladas en el Capítulo III del Título V de esta Norma Foral.

Los contribuyentes deberán informar en la memoria de todos los extremos relativos a la aplicación de lo dispuesto en este artículo.

4. Transcurrido el plazo de diez años sin haberse invertido o habiéndose invertido inadecuadamente el importe correspondiente, una cuantía equivalente se integrará en la base imponible del período impositivo concluido a la finalización de dicho plazo o del ejercicio en el que se haya realizado la inadecuada disposición, adicionando a la cuota resultante los correspondientes intereses de demora.

Se procederá de la misma forma en el caso de liquidación de la entidad con relación al importe pendiente de aplicación del factor de agotamiento, así como en los casos de cesión o enajenación total o parcial de la explotación minera y en los de fusión, escisión, cesión global del activo y del pasivo o aportación de rama de actividad, salvo que la entidad resultante, continuadora de la actividad minera, asuma el cumplimiento de los requisitos necesarios para consolidar el beneficio disfrutado por la entidad transmitente, en los mismos términos en que venía figurando en la entidad anterior.

Artículo 29.—Factor de agotamiento en actividades de exploración, investigación y explotación de hidrocarburos

1. Pueden considerarse deducibles para la determinación de la base imponible las cantidades que destinen, en concepto de factor de agotamiento, a la realización de las actividades a que se refiere el apartado siguiente de este artículo, los contribuyentes cuyo objeto social sea exclusivamente la exploración, investigación y explotación de yacimientos y de almacenamientos subterráneos de hidrocarburos naturales, líquidos o gaseosos, existentes en el territorio del Estado y en el subsuelo del mar territorial y de los fondos marinos que estén bajo la soberanía del Reino de España, en los términos establecidos en la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos, y con carácter complementario de éstas, las de transporte, almacenamiento, depuración y venta de los productos extraídos.

La deducción para la determinación de la base imponible en concepto de factor de agotamiento podrá ser, a elección de la entidad, cualquiera de las dos siguientes:

a) El 25 por 100 del importe de la contraprestación por la venta de hidrocarburos y de la prestación de servicios de almacenamiento, con el límite del 50 por 100 de la base imponible previa a esta reducción.

b) El 40 por 100 de la cuantía de la base imponible previa a esta reducción.

2. Las cantidades que se deduzcan para la determinación de la base imponible en concepto de factor de agotamiento sólo podrán ser invertidas en las actividades de su objeto social, así como en el abandono de campos y en el desmantelamiento de plataformas marinas en el plazo de diez años contados desde la conclusión del período impositivo en el que se deduzca para la determinación de la base imponible en concepto de factor de agotamiento, e incluso podrán considerarse invertidas en las actividades de exploración, investigación y explotación realizadas en los cuatro años anteriores al primer período impositivo en el que se deduzca.

Ondorio horietarako, hau hartuko da esplorazio edo ikerketa-tzat: aurreiazko azterlan geologiko, geofisiko edo sismikoak, bai eta esploratzeko edo ikertzeko baimenaren eremuan egindako gas-tu guztiak ere, hala nola esplorazio-zundaketak, ebaluazio- eta garapen-gastuak —negatiboak badira—, eta eremuotara heldu eta lurra- prestatzeko obra-gastuak zein zundaketok lokalizatzekoak. Gas-tuak emakida batean egiten badira ere esplorazio- eta ikerketa-gas-tuztat hartuko dira, baldin eta hidrokarbuoak eduki edo gordetze-ko gai den egitura bat lokalizatzeko eta zultzeko lanetarako badira, betiere egitura hori ez bada ustiapen-emakida ematea eragin zuen hobian dagoen egitura bera. Eremuak bertan behera utzi eta itsas plataformak eraisteen direla ulertuko da lehorreko edo itsasoko ekoiz-pen-instalazioak desegiteko lanak egiten badira, eta lan horien bitar-tez libre eta garbi uzten bada instalazio horiek okupatzen zuten lur-zorua edo itsas eremua, emakidan zehaztutako moduan.

Ondore horietarako, ustiapeneko inbertsioetat hartuko dira ustiapen-emakida baten eremuan egiten direnak, hala nola putzuen disei-nu, zulaketa eta eraikuntza, ustiapen-instalazioak eta ustiapen-lanak egin ahal izateko beharrezkoa den beste edozein inbertsio —mate-rialia edo ez-materialia—, betiere ez badagozkie emakidadunak ares-tian esandako esplorazio- eta ikerketa-jardueretan egindako inber-tsoiei.

Ondorio horietarako, positibo ateratzen diren ebaluazio- eta gara-pen-zundaketak ustiapen gisa sartuko dira.

3. Zergaldi bakoitzean, entitatearen erreserba kontuei gehi-tu egin behar zaie zerga-oinarria zehazterakoan agortze-faktorea dela-eta kendu den zenbatekoa, eta erreserba horiek bakarrik ahal izango dira askatasunez erabili funts horiekin finantzatzeko onda-sunak amortizatu ahal.

Agortze-faktorea gauzatzen deneko inbertsioei ez zaizkie apli-katuko foru arau honetako V. tituluko III. kapituluaren erregulatutako kenkariak.

Zergadunek memorian azaldu beharko dituzte artikuluko hone-tan xedatutakoaren aplikazioari buruzko inguruabar guztiak.

4. Hamar urteko epea pasatzen bada inbertitu beharreko zen-batekoa inbertitu gabe, edo epe horren barruan modu desegokian inbertitzen bada, zenbateko bera sartuko da zerga-oinarrian aldi horren amaieran bukatuta dagoen zergaldian edo inbertsio dese-gokia egin den zergaldian, eta berandutze-interesak gehituko zaiz-kio kuotari.

Modu berean jokatu da entitatea likidatzen den edo haren xede soziala aldatzen den kasuetan, agortze-faktoretik aplikatu gabe dagoen zenbatekoari dagokionez. Orobat egingo da lagapen edo besterentze osoa nahiz partziala, bat-egitea, eraldaketa, zatiketa, aktiboaren edo pasiboaren lagapen orokorra edo jarduera-adarren ekarpena egiten den kasuetan ere, salbu eta ondoriozko entitate-ak, jarduera egiten jarraitzen duenak, xede sozial bakartzat artikuluko honetako 1. zenbatekoa badu eta bere gain hartzen baditu entita-te eskualdatzaileak izandako onura bateratzeko betekizunak bete-zea, lehengo entitateak zituen baldintza berekin.

30. artikulua.—*Aurrezki-kutxen gizarte-ongintzarako ekintza*

1. Aurrezki-kutxek, zerga-oinarria zehazterakoan, kutxak erregulatzen dituzten arauekin bat, haien emaitzetan kendu egin ahal izango dute gizarte-ongintzarako ekintzak finantzatzeko era-biltzen duten zenbatekoa.

2. Aurrezki-kutxen gizarte-ongintzarako ekintzari esleitura-ko kopuruen %50, gutxienez, esleipenari dagokion ekitaldian apli-katu behar dira —edo hurrengo ekitaldian—, gizarte-ongintzarako ekintzari afektatutako inbertsioak egiteko, edo ekintza horren babespeko instituzio edo establezimenduei eusteko gastuak ordaintzeko.

3. Aurreko zenbakian adierazitako epea igaro bada, baina aplikatu beharreko zenbatekoak ez badira aplikatu edo behar ez den bezala aplikatu badira, orduan zenbateko bera sartu beharko da epe hori amaitzen den zergaldiko zerga-oinarrian edo aplika-

A estos efectos se entenderá por exploración o investigación los estudios preliminares de naturaleza geológica, geofísica o sísmica, así como todos los gastos realizados en el área de un permiso de exploración o investigación, tales como los sondeos de exploración así como los gastos de evaluación y desarrollo, si resultan negativos, los gastos de obras para el acceso y preparación de los terrenos y de localización de dichos sondeos. También se considerarán gastos de exploración o investigación los realizados en una concesión y que se refieran a trabajos para la localización y perforación de una estructura capaz de contener o almacenar hidrocarburos, distinta a la que contiene el yacimiento que dio lugar a la concesión de explotación otorgada. Se entenderá por abandono de campos y desmantelamiento de plataformas marinas los trabajos necesarios para desmantelar las instalaciones productivas terrestres o las plataformas marinas dejando libre y expedito el suelo o el espacio marino que las mismas ocupaban en la forma establecida en su otorgamiento.

Se entenderá, a estos efectos, por inversiones en explotación las realizadas en el área de una concesión de explotación, tales como el diseño, la perforación y la construcción de los pozos, las instalaciones de explotación y cualquier otra inversión, tangible o intangible, necesaria para poder llevar a cabo las labores de explotación, siempre que no se correspondan con inversiones realizadas por el concesionario en las actividades de exploración o de investigación referidas anteriormente.

Se incluirán como explotación, a estos efectos, los sondeos de evaluación y de desarrollo que resulten positivos.

3. En cada período impositivo deberán incrementarse las cuentas de reservas de la entidad en el importe que se deduzca para la determinación de la base imponible en concepto de factor de agotamiento, reservas de las que sólo podrá disponerse libremente en la medida en que se vayan amortizando los bienes financiados con dichos fondos.

Las inversiones en las que se materialice el factor de agotamiento no podrán disfrutar de las deducciones reguladas en el Capítulo III del Título V de esta Norma Foral.

Los contribuyentes deberán informar en la memoria de todos los extremos relativos a la aplicación de lo dispuesto en este artículo.

4. Transcurrido el plazo de diez años sin haberse invertido o habiéndose invertido inadecuadamente el importe correspondiente, una cuantía equivalente se integrará en la base imponible del período impositivo concluido a la finalización de dicho plazo o del ejercicio en el que se haya realizado la inadecuada disposición, adicionando a la cuota resultante los correspondientes intereses de demora.

Se procederá de la misma forma en el caso de liquidación de la entidad o de cambio de objeto social de la misma con relación al importe pendiente de aplicación del factor de agotamiento, así como en los casos de cesión o enajenación total o parcial, fusión, transformación, escisión, cesión global del activo o pasivo, o aportaciones de ramas de actividad, salvo que la entidad resultante continuadora de la actividad tenga como objeto social, exclusivamente, el establecido en el apartado 1 de este artículo y asuma el cumplimiento de los requisitos necesarios para consolidar el beneficio disfrutado por la entidad transmitente, en los mismos términos en que venía figurando en la entidad anterior.

Artículo 30.—*Obra benéfico-social de las Cajas de Ahorro*

1. Las Cajas de Ahorro podrán deducir para la determinación de su base imponible una cantidad equivalente a la que des-tinen de sus resultados a la financiación de obras benéfico-socia-les, de conformidad con las normas por las que se rigen.

2. Las cantidades asignadas a la obra benéfico-social de las Cajas de Ahorro deberán aplicarse, al menos, en un 50 por 100, en el mismo ejercicio al que corresponda la asignación, o en el inme-diato siguiente, a la realización de las inversiones afectas, o a sufragar gastos de sostenimiento de las instituciones o establecimien-tos acogidos a la misma.

3. Transcurrido el plazo mencionado en el apartado anterior sin haberse aplicado o habiéndose aplicado inadecuadamente las cantidades correspondientes, una cuantía equivalente se integra-rá en la base imponible del período impositivo concluido a la fina-

zio desegokia egin den zergaldian, eta berandutze-interesak gehitu beharko zaizkio kuotari.

Modu berean jokatu da entitatea likidatzen den edo haren xede soziala aldatzen den kasuetan, gizarte-ongintzarako ekintzari esleitutako zenbatekoetatik aplikatzeko geratzen den zatiari dagokionez, bai eta bat-egitea, eraldaketa, zatiketa, aktibo eta pasibo osoaren lagapena egiten den kasuetan ere, salbu eta ondoriozko aurrezki-kuxak, jarduera egiten jarraitzen duenak, bere gain hartzen baditu entitate eskualdatzaileak izandako onura bateratzeko betekizunak betetzea, lehengo entitateak zituen baldintza bereberekin.

4. 2010eko uztailaren 9ko 11/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren ezarritakoarekin bat (aurrezki-kutxen gobernu-organoei eta araubide juridikoaren beste alderdi batzuei buruzkoa da) beren finantza-jarduera banku-entitate baten bidez egiten duten aurrezki-kutxek gizarte-ekintzarako hornitzen dituzten zenbatekoak bankuaren zerga-oinarria murrizteko erabil daitezke, finantza-jarduera zeharka eta baterakuntza araubidea aplikatu gabe egiten bada, eta banku edo entitate zentral horretatik jasotako dibidenduek kutxaren sarrera osoetan duten proportzio berean murriztuko dira, artikuluko honetako gainerako zenbakietan ezartzen diren baldintzetan, baina gehienez ere dibidenduon zenbateko osoa erabili ahal izango da murrizketa egiteko.

Horretarako, aurrezki-kutxak murrizketaren zenbatekoa jakinarazi behar dio dibidenduak ordaindu dizkion bankuari edo entitate nagusiari. Gainera, murrizketaren zenbatekoari artikuluko honetako goiko zenbakietan xedatutakoa aplikatu nahi ez badiu, horren berri ere eman behar dio. Hala ere, aurrezki-kutxak gizarte-ongintzarako ekintzari esleitutako zenbatekoak aplikatzen jarraitu beharko du, artikuluko honetan ezartzen diren baldintzetan, eta hala egiten ez badu, horren berri eman behar dio bankuari edo entitate nagusiari, kendutako kopuruak erregulariza dituzan, foru arau honetako 127.2 artikuluan ezarri den bezala.

5. Aurrezki-kutxek ez dituzte zerga-oinarrian sartuko euren gizarte-ongintzarako ekintza mantentzeko gastuak, nahiz eta gastuok handiagoak izan egindako esleipenak baino, etorkizuneko esleipenen aplikaziotzat jotzearen kalterik gabe.

31. artikulua.—*Kengarriak ez diren gastuak*

1. Ez dira gastu fiskalki kengarritzat hartuko honako hauek:

- a) Funts propioen ordainsaria direnak.
- b) Sozietateen gaineko Zerga kontabilizatzearen ondoriozkoak. Ez dira sarreratzat hartuko kontabilizazio horretatik datozenak.
- c) Isunak, zigor- eta administrazio-zehapenak, betearazpen aldiko errekaruak eta aurretiazko errekerimendurik gabe epez kanpo aurkeztutako aitorpenengatiko errekaruak.
- d) Jokoko galerak.
- e) Dohaintzak eta liberalitateak.

Honako gastu hauek ez dira letra honetan sartuko: bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoen ondoriozko gastuak; usadio eta ohituren arabera enpresako langileei dagokienez egiten diren gastuak; ondasunen salmenta eta zerbitzuak ematea —zuzenean edo zeharka— sustatzeko gastuak; ez eta sarrerekin zerikusia dutenak ere, hurrengo 2. zenbakian xedatutakoaren kalterik gabe.

f) Pentsio Funts eta Planei buruzko Legearen testu bateginak (2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak) eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen zerga-araubideari buruzko foru arauak jasotako kontingentzien bezalakoak edo antzekoak estaltzeko horniduretarako edo barne funtsetarako zuzkidurak.

g) Erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin, zuzenean edo zeharka, egindako eragiketeei dagozkien zerbitzuen gastuak, edo egoitza paradisuotan duten pertsona edo entitateen bitartez ordaintzen diren gastuak, salbu zergadunak frogatzen badu gastua benetan egindako eragiketa edo transakzio bati dagokiola.

lización de dicho plazo o del ejercicio en el que se haya realizado la inadecuada disposición, adicionando a la cuota resultante los correspondientes intereses de demora.

Se procederá de la misma forma en el caso de liquidación de la entidad con relación al importe pendiente de aplicación de las cantidades asignadas a la obra benéfico-social, así como en los casos de fusión, escisión o cesión global del activo y del pasivo, salvo que la Caja de Ahorros resultante asuma el cumplimiento de los requisitos necesarios para consolidar el beneficio disfrutado por la entidad transmitente, en los mismos términos en que venía figurando en la entidad anterior.

4. La dotación a la obra social realizada por las Cajas de Ahorros acogidas a lo dispuesto para el ejercicio indirecto de la actividad financiera a través de una entidad bancaria en el Real Decreto-Ley 11/2010, de 9 de julio, de órganos de gobierno y otros aspectos del régimen jurídico de las Cajas de Ahorros, podrá reducir la base imponible del banco en el caso de ejercicio indirecto de la actividad financiera sin aplicar el régimen de consolidación o de la entidad central del sistema institucional de protección, en la proporción que los dividendos percibidos del citado banco o entidad central representen sobre los ingresos totales de la caja, en los términos previstos en los apartados anteriores de este artículo, hasta el límite máximo del importe de los citados dividendos.

Para ello, la Caja de Ahorros deberá comunicar al banco o entidad central que haya satisfecho los dividendos el importe de la reducción así calculada y su renuncia a aplicar lo dispuesto en los apartados anteriores de este artículo por el importe de la mencionada reducción, sin perjuicio de que la Caja de Ahorros continúe estando obligada a aplicar las cantidades asignadas a la obra benéfico-social en las condiciones establecidas en este artículo, cuyo incumplimiento, en su caso, deberá también comunicarse al banco o entidad central al objeto de que se realice la regularización de las cantidades deducidas en los términos establecidos en el apartado 2 del artículo 127 de esta Norma Foral.

5. Las Cajas de Ahorro no integrarán en su base imponible los gastos de mantenimiento de la obra benéfico-social de las mismas, aun cuando excedieran de las asignaciones efectuadas, sin perjuicio de que tengan la consideración de aplicación de futuras asignaciones.

Artículo 31.—*Gastos no deducibles*

1. No tendrán la consideración de gastos fiscalmente deducibles:

- a) Los que representen una retribución de los fondos propios.
- b) Los derivados de la contabilización del Impuesto sobre Sociedades. No tendrán la consideración de ingresos los procedentes de dicha contabilización.
- c) Las multas y sanciones penales y administrativas, los recargos del período ejecutivo y el recargo por declaración extemporánea sin requerimiento previo.
- d) Las pérdidas del juego.
- e) Los donativos y liberalidades.

No se entenderán comprendidos en esta letra los gastos por relaciones públicas con clientes o proveedores ni los que con arreglo a los usos y costumbres se efectúen con respecto al personal de la empresa ni los realizados para promocionar, directa o indirectamente, la venta de bienes y prestación de servicios, ni los que se hallen correlacionados con los ingresos, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2 siguiente.

f) Las dotaciones a provisiones o fondos internos para la cobertura de contingencias idénticas o análogas a las que son objeto del Texto Refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2002, de 29 de noviembre, y de las Normas Forales que regulan el régimen fiscal de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

g) Los gastos de servicios correspondientes a operaciones realizadas, directa o indirectamente, con personas o entidades residentes en países o territorios calificados reglamentariamente por su carácter de paraísos fiscales, o que se paguen a través de personas o entidades residentes en los mismos, excepto que el contribuyente pruebe que el gasto devengado responde a una operación o transacción efectivamente realizada.

Entitate ez-egoiliarrek lortutako zenbait errenta positibo zerga-oinarrrian sartzeko araubidea (foru arau honetako 48. artikuluan erregulatzen dena) ez zaie aplikatuko aurreko zenbakiaren arabera fiskalki kengarriak ez diren gastuekin lotutako errentei.

h) 2012ko urriaren 29ko 7/2012 Legeko 7. artikuluan esku-dirutan ordaintzeko mugei buruz xedatutakoa betetzen ez duten eragiketen ondoriozko gastuak (lege hori iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzekoa da).

i) Eroskeria.

2. Aurreko zenbakiko e) letraren bigarren lerroaldean aipatzen diren gastuak kengarriak izango dira, diru-sarrekin loturik badaude, honako zenbateko eta baldintza hauen arabera:

a) Harreman publikoak direla-eta jatetxe, ostatu, bidaia eta joan-etorrietan egiten diren gastuen %50. Gehieneko muga, kontzeptu guztiak batera hartuta, zergadunaren eragiketa bolumenaren %5 izango da; bolumen hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean definitzen da.

b) Opariak eta bestelako esku-erakutsiak, baldin eta hartzaile eta zergaldi bakoitzeko zenbateko unitarioa ez bada 300 euro baino handiagoa, eta hartzailearen nortasuna jasota geratzen bada agiriren batean. Baldin eta aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekoa baino handiagoak badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarriak.

3. Honako erregela hauek aplikatuko dira garraio-elementuak erabiltzetik sortzen diren gastuei dagokienez:

a) Automobilak eta haien atoiak, motorrak eta motozikletak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo baliogalerarekin zerikusia duten gastuen eta ibilgailu horien erabilerari lotutako beste guztien %50 kendu ahal izango da. Gehieneko muga hau izango da: batetik, 2.500 euro edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren %50, baldin eta munta txikiko zenbatekoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo baliogalera dela eta; bestetik, 3.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik. Kasu guztietan, ibilgailu bakoitzeko eta urteko zenbatekoak hartuko dira kontuan. Aipaturiko ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuengatik kenkariak muga hau izango du ibilgailuaren prezioa 25.000 eurotik gorakoa denean: 25.000 eurok ibilgailuaren eskuraketa-prezioan ordezkatzeko parte proportzionalaren %50.

Baldin eta pertsona berak letra honetan aipatzen diren ibilgailuetariko bat baino gehiago erabiltzen badu, pertsona eta urteko aplikatuko dira muga horiek, zenbanahi ibilgailu erabilita ere.

Baldin eta ibilgailu bat ez bada urte osoan erabili, ibilgailu hori erabili duen denboraren arabera kalkulatuko dira letra honetan kenkarirako ezartzen diren gehieneko mugak.

Baina letra honetan aipaturiko gastuak osorik izango dira kengarriak, eta kenkariaren gehieneko muga hau izango da: batetik, 5.000 euro edo zergadunak erabiltako amortizazio-portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta munta txikiko zenbatekoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo baliogalera dela eta; eta bestetik, 6.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik, baldin eta. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 117.3 artikuluan adierazitako moduan, goian azaldutako mugen barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzazko ordainsari gisa egotzi zaiolako (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 60. artikuluan ezarritako arauari jarraituz), edo zergadunak modu sinesgarrian frogatu duelako ibilgailua ekonomia-jarduera bat egiteko baino ez dela erabiltzen.

El régimen de inclusión en la base imponible de determinadas rentas positivas obtenidas por entidades no residentes, regulado en el artículo 48 de esta Norma Foral, no resultará de aplicación a las rentas correspondientes a los gastos calificados como fiscalmente no deducibles con arreglo a lo dispuesto en el párrafo anterior.

h) Los gastos derivados de operaciones en las que se incumpla lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 7/2012, de 29 de octubre, de modificación de la normativa tributaria y presupuestaria y de adecuación de la normativa financiera para la intensificación de las actuaciones en la prevención y lucha contra el fraude, sobre limitaciones a los pagos en efectivo.

i) Los sobornos.

2. Los gastos señalados en el segundo párrafo de la letra e) del apartado anterior serán deducibles, en la medida que estén relacionados con los ingresos, en la cuantía y con los requisitos siguientes:

a) El 50 por 100 de los gastos por relaciones públicas relativos a servicios de restauración, hostelería, viajes y desplazamientos, con el límite máximo conjunto del 5 por 100 del volumen de operaciones del contribuyente, tal y como se define en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Los regalos y demás obsequios siempre que el importe unitario por destinatario y período impositivo no exceda de 300 euros y quede constancia documental de la identidad del receptor. En el supuesto de que los citados gastos excedan el importe señalado serán deducibles hasta esa cuantía.

3. Se aplicarán las siguientes reglas en relación con los gastos derivados de la utilización de elementos de transporte:

a) Será deducible el 50 por 100 de los gastos que estén relacionados con la adquisición, arrendamiento, reparación, mantenimiento, depreciación y cualquier otro vinculado a la utilización de vehículos automóviles de turismo y sus remolques, de ciclomotores y motocicletas, con el límite máximo, por una parte, de la cantidad de 2.500 euros o el 50 por 100 del importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por el contribuyente por 25.000 euros, si es un importe menor y el elemento patrimonial es objeto de amortización, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación y, por otra parte, con el límite máximo de 3.000 euros por los demás conceptos relacionados con su utilización, por vehículo y año en todos los casos. La deducción de los gastos financieros relacionados con la adquisición de los mencionados vehículos estará limitada al 50 por 100 de la parte proporcional que represente la cantidad de 25.000 euros respecto al precio de adquisición del vehículo, cuando éste sea superior.

En el supuesto de que una misma persona utilice simultáneamente más de un vehículo de los referidos en la presente letra, los límites señalados se aplicarán por persona y año, con independencia del número de vehículos que utilice.

Cuando el vehículo no se haya utilizado durante todo el año, los límites máximos de deducción a que se refiere esta letra se calcularán proporcionalmente al tiempo en que se haya utilizado el vehículo de que se trate.

No obstante, los gastos señalados en esta letra serán deducibles en su totalidad, hasta el límite máximo, por una parte, de 5.000 euros o el importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por el contribuyente por 25.000 euros, si es un importe menor y el elemento patrimonial es objeto de amortización, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación y, por otra parte, con el límite máximo de 6.000 euros por los demás conceptos relacionados con su utilización, cuando se ejercite la opción, en los términos señalados en el apartado 3 del artículo 117 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, de considerar deducible la totalidad del gasto dentro de los límites expuestos, al haber sido objeto de imputación la cantidad correspondiente en concepto de retribución en especie a la persona que lo utiliza, de acuerdo con las normas establecidas en el artículo 60 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, o bien el contribuyente pruebe fehacientemente su afectación exclusiva al desarrollo de una actividad económica.

Aurreko lerroaldean azaldu diren kasuetan, aipatutako ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuengatik kenkariak muga hau izango du ibilgailuaren prezioa 25.000 eurotik gorakoa denean: 25.000 eurok ibilgailuaren eskuraketa-prezioan ordezkatzeko duten parte proportzionala.

b) Kengarriak izango dira ondoren jasotzen diren ibilgailuen erosketa, alokairu, konponketa, mantentze-lan eta baliogalerarekin zerikusia duten gastuak nahiz ibilgailuok erabiltzearekin zerikusia duten beste gastuak ere; hauek dira ibilgailuok:

1. Salgaien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.
2. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak.
3. Fabrikatzaileek probak, saioak, erakusketak edo salmenten sustapena egiteko erabilitakoak.
4. Gidariei edo pilotuei kontraprestazio bat ordainduta irakasteko zerbitzuetan erabilitakoak.
5. Zaintza-zerbitzuetan erabilitakoak.
6. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten erakundeek kontraprestazio bidezko alokairu-jarduera horretarako soil-soilik eta egiaz erabiltzen dituztenak.

c) Kengarriak izango dira ordezkari edo agente komertzialek beren joan-etorri profesionalean erabiltzen dituzten ibilgailuekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, alokatzea, konpontzea, mantentze-lanak egitea, haien baliogalera eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu.

Ibilgailuok foru arau honetako 42. artikuluan adierazten den beza-lotua den pertsona batek erabiltzen baditu, ordea, zenbaki honetako a) letran ezarritakoa aplikatuko da errentamendu, lagapen edo baliogaleraren ondoriozko gastuen mugari dagokionez, baita ibilgailuaren erosketarekin zerikusia duten finantza-gastuen mugari buruz ere.

d) Ez dira kengarriak izango laketontziekin edo itsas kiroletako itsasontziekin zein aireontziekin zerikusia duten gastuak, baldin eta halakoen erosketa, inportazio, errentamendu, konponketa, mantentze-lan, baliogalera eta erabilerarekin zerikusia duten gastuak badira.

Garraibide horiek ekonomia-jarduera bati bakarrik afektatuta badaude, aurreko lerroaldean aipatzen diren gastuak kengarriak izango dira, baina zergaldi bakoitzean lortutako diru-sarrerak gehieneko muga direla.

Hala ere, muga hori ez da aplikatzekoa izango baldin eta zergadunak egiaztatua badu badituela ekonomia-jarduera horretan —garraibideok ustiatzen, alegia— denboran zehar jarraituki jarduteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

4. Kengarriak izango dira dohaintza gisa ordaindutako kopuruak eta emandako ondasunen kontabilitateko balioa, kirol federazioen eta kirol klubuen xedek lortzeko erabil badaitezke, kirol jardueraren profesionalen sustapen eta garapenerako kirol sozietate anonimoek emandako diru-kopuruei dagokienez, betiere entitate horien artean kostu bidezko kontratu-lotura bat badago, zeina beharrezkoa den aipatutako kirol federazio eta klubuen helburua lortzeko.

5. Aurreko 1. zenbakiko a) letran xedatutakoa gorabehera, partaidetza-mailegu baten ondorioz sortzen diren interesak —finakoak zein aldakorrek—, foru arau honetako 47. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar zaienak izan ezik, kengarriak izango dira, baldin eta mailegu horrek betekizun eta baldintza hauek betetzen baditu:

a) Entitate mailegu-emaileak interes aldakor bat jasotzea, zeina enpresa mailegu-hartzailearen jardueraren bilakaeraren arabera zehaztuko den.

Bilakaera hori zehazteko irizpide hauek erabili ahal izango dira: mozkin garbia, negozio-bolumena, ondare osoa edo kontratugileek askatasunez adosten duten beste edozein.

En los supuestos a los que se refiere el párrafo anterior, la deducción de los gastos financieros relacionados con la adquisición de los mencionados vehículos estará limitada a la parte proporcional que represente la cantidad de 25.000 euros respecto al precio de adquisición del vehículo, cuando éste sea superior.

b) Serán deducibles los gastos que estén relacionados con la adquisición, arrendamiento, reparación, mantenimiento, depreciación y cualquier otro vinculado a la utilización de los siguientes vehículos:

1. Los vehículos mixtos utilizados en el transporte de mercancías.
2. Los utilizados en las prestaciones de servicios de transporte de viajeros mediante contraprestación.
3. Los utilizados por sus fabricantes en la realización de pruebas, ensayos, demostraciones o en la promoción de ventas.
4. Los utilizados en la prestación de servicios de enseñanza de conductores o pilotos mediante contraprestación.
4. Deberán ser puestos en conocimiento de la Administración tributaria junto con la declaración por este Impuesto, en la forma que se determine por el diputado foral de Hacienda y Finanzas, cuantos datos con trascendencia tributaria resulten en relación con las rentas que, en base a lo dispuesto en los apartados precedentes, no se integren en la base imponible del contribuyente.

36. artikulua.—Aparteko mozkinak berrinbertitzea

1. Nahi izanez gero, zerga-oinarrian sartu gabe utz daitezke ustiapen ekonomikoei loturiko ibilgetu material edo ez materialeko edo higiezin inbertsioetako ondare-elementuen kostu bidezko eskualdaketetan lortutako errentak, foru arau honetako 40.9 artikuluan araututako moneta-baliogalera aplikatuz zuzendu ondoren. Orobat egin daiteke elementu horietatik datozen errentekin, eskualdatu aurretik salmentarako mantendutako aktibo ez-korronte gisa sailkatuta bazeuden.

Zerga-oinarrian ez sartzeko aukeraz baliatu ahal izateko, eskualdaketaren bidez lortutako zenbatekoa aurrean aipatutako ondare-elementuetako batean inbertitu behar da, ondare-elementu hori eman edo eskura jarri den egunaren aurreko urtetik eta hurrengo hiru urteen arteko epean.

Berrinbertsioari dagokionez, ez dira kontuan hartuko berrinbertsioa egingo den aktiboei lotutako eraiste edo kentzeen ondorioz hartuko diren betebeharrei dagozkien kostuak, kostuok kontuan har daitezkeen arren berrinbertsioa balioesteko.

Partaidetzetatik sortutako errentak zerga-oinarritik kanpo utzi ahal izateko foru arau honetako 33.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateen kapitaleko edo funts propioetako partaidetzen eskuraketan ere gauzatu ahal izango da berrinbertsioa, baina sekula ere ez inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzetan edo kapital sozialeko partaidetzarik ematen ez duten baloreetan.

Hala ere, baldin eta errenta agerian jarri bada entitateei ondare-elementu batzuen ekarpena eginda (ez-diruzko ekarpena, beraz), berrinbertsioa ezingo da gauzatu ekarpen hori jaso duen entitatearen kapitaleko edo funts propioetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreetan.

Berrinbertsioa gauzatzen den ondare-elementuak eskura jarri diren eguneko joko da egindakotzat berrinbertsio hori.

Ondare-elementuok finantza-errentamenduko kontratuen helburu izanez gero, kontratua egiten den eguneko joko da berrinbertsioa egindakotzat, eta berrinbertsioaren zenbatekoa ondare-elementuaren kontabilitateko balioa izango da. Berrinbertsioak ondorioak izateko, erosteko aukera erabili behar da; izan ere, bestela, izaera ebazgarria izango du.

2. Ondare-elementuen balio-narriaduragatik izandako galearen zenbatekoa ez da sartuko zerga-oinarritik kanpo uzten diren errenten multzoan, baldin eta galera horiek kenkari fiskala izan badute. Aurreko horiez gainera, hauek ere ez dira multzo horretan sartuko: foru arau honetako 25. artikuluan xedatutakoari jarraituz kendu diren zenbatekoak, edo amortizatze askatasun, amortizazio azeleratu nahiz baterako amortizazioari aplikatutakoak, aipatutako zerga-oinarrian sartu behar badira onura horiek izan zituzten ondare-elementuak eskualdatzen direnean.

3. Zerga Administrazioak berrinbertsiorako plan bereziak onetsi ahal izango ditu hala egitea justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

Aurreko lerroaldean aipatutako inguruabarrak gertatzen direla ulertuko da frogatzen baldin bada ezen, inbertsioaren ezaugarri teknikoak edo ekonomikoak direla eta, 1. zenbakian ezarritakoa baino epe luzeagoa behar dela inbertsioa egin ahal izateko, edo, behar bezala arrazoitutako bat-bateko inguruabarrenatik inbertsio-prozesua ezin denean aipatutako epe horretan burutu.

Berrinbertsio plan berezia onesteko eskabidea erregelamendu bidez zehazten diren prozedura eta baldintzak betez egin behar da. Hain zuzen ere, ondare-elementuak eskualdatu aurreko edo osteko sei hilabeteko epean aurkeztuko da eskaera hori, edo, bestela, berrinbertsio aurreratua egitea aurreikusten den egunaren aurreko sei hilabeteko epean, salbu eta bat-bateko inguruabarren ondorioz egin behar denean berrinbertsioa. Halakoetan, bada, artikuluko 1. zenbakian ezarritako epea amaitu aurretik aurkeztu beharko da eskabidea, eta bertan zehaztu beharko dira berrinbertsioaren zer zati egin den eta zenbat denbora beharko den hura burutzeko.

Artículo 36.—Reinversión de beneficios extraordinarios

1. Podrán no integrarse en la base imponible las rentas obtenidas, una vez corregidas, en su caso, en el importe de la depreciación monetaria regulada en el apartado 9 del artículo 40 de esta Norma Foral, en la transmisión onerosa de elementos patrimoniales del inmovilizado material, intangible o inversiones inmobiliarias, afectos a explotaciones económicas, o de estos elementos cuando hayan sido clasificados como activos no corrientes mantenidos para la venta con carácter previo a su transmisión.

Para la no integración será necesario que el importe obtenido en las citadas transmisiones se reinvierta en cualquiera de los elementos patrimoniales antes mencionados, dentro del plazo comprendido entre el año anterior a la fecha de la entrega o puesta a disposición del elemento patrimonial y los tres años posteriores.

A los efectos de la reinversión no serán tenidos en cuenta los costes correspondientes a las obligaciones asumidas derivadas del desmantelamiento o retiro asociados a los activos en que se materialice dicha reinversión, con independencia de su consideración a efectos de la valoración de aquéllos.

La reinversión también podrá materializarse en la adquisición de participaciones en el capital o en los fondos propios de entidades que cumplan los requisitos establecidos en el apartado 1 del artículo 33 de esta Norma Foral para gozar de la no integración en la base imponible de las rentas procedentes de las mismas, sin que pueda materializarse la reinversión en ningún caso en participaciones en instituciones de inversión colectiva ni en valores que no otorguen una participación sobre el capital social.

No obstante, en el caso de que la renta se hubiera puesto de manifiesto con ocasión de la aportación no dineraria de elementos patrimoniales a entidades, la reinversión no podrá materializarse en los valores representativos de la participación en el capital o en los fondos propios de las entidades receptoras de las citadas aportaciones.

La reinversión se entenderá materializada en la fecha en que se produzca la puesta a disposición de los elementos patrimoniales en que se materialice.

Tratándose de elementos patrimoniales que sean objeto de contratos de arrendamiento financiero, se considerará realizada la reinversión en la fecha de celebración del contrato, por un importe igual al valor de contado del elemento patrimonial. Los efectos de la reinversión estarán condicionados, con carácter resolutorio, al ejercicio de la opción de compra.

2. No formarán parte de las rentas objeto de no integración en la base imponible el importe de las pérdidas por deterioro de valor relativas a los elementos patrimoniales en cuanto hubieran sido fiscalmente deducibles, ni las cantidades deducidas conforme a lo dispuesto en el artículo 25 de esta Norma Foral o las aplicadas a la libertad de amortización, amortización acelerada o amortización conjunta que deban integrarse en la mencionada base imponible con ocasión de la transmisión de los elementos patrimoniales que disfrutaron de las mismas.

3. La Administración tributaria podrá aprobar planes especiales de reinversión cuando concurren circunstancias específicas que lo justifiquen.

A estos efectos, se entiende que concurren las circunstancias a que se refiere el párrafo anterior cuando se pruebe que, por sus características técnicas o económicas, la inversión debe efectuarse necesariamente en un plazo de tiempo superior al previsto en el apartado 1 de este artículo, o en los supuestos en los que, por circunstancias sobrevenidas debidamente motivadas, no pueda completarse el proceso de reinversión en el mencionado plazo.

La solicitud de aprobación de un plan especial de reinversión se ajustará al procedimiento y requisitos que reglamentariamente se determinen, debiendo ser presentada dentro del período de seis meses anteriores o posteriores a la transmisión del elemento patrimonial o, en su caso, en los seis meses anteriores a la fecha en la que se prevé realizar la reinversión anticipada, salvo cuando derive de circunstancias sobrevenidas, en cuyo caso, la solicitud deberá presentarse antes de que concluya el plazo previsto en el apartado 1 de este artículo y deberá precisar la parte de la reinversión realizada y el plan temporal necesario para completarla.

4. Berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuak zergadunaren ondarean eduki beharko dira, artikuluko honetako 1. zenbakian ezarritako betekizunak betez eta justifikatutako galerarik ez bada. Ondasun higigarrien kasuan, bost urtez eduki beharko dira, berrinbertsioa gauzatzeko denetik hasita, edo hiru urtez ondasun higigarriak bada, non eta haien balio-bizitza ez den laburragoa, foru arau honetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Elementuok arestian aipatutako epe hori amaitu baino lehen eskualdatzen badira, aurretik zerga-oinarrian sartu ez den errenten zatia zerga-oinarrian sartu beharko da, salbu eta hala lortutako zenbatekoa ez den berrinbertitzen —aurreko 1. zenbakian zehaztutakoarekin bat— eskualdaketa egin osteko hiru hilabeteetan.

5. Berrinbertsioa ez bada egiten adierazitako epe horretan, sartu gabeko zenbatekoak, ez-betetzeari dagozkionak, epea amaitu den zergaldiko zerga-oinarrian sartuko dira, eta haien zenbatekoaren %15 gehituko zaie.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren kalterik gabe, Espainiako eta Europako ekonomia-intereseko elkartzeen edo aldi baterako enpresa-elkarteen araubide berezietan dauden entitateen kasuan, lortutako errenta positiboak dagokien zerga-oinarriaren zatia entitatearen bazkideei egotzi beharko zaie, foru arau honetako VI. titulu III. kapituluaren ezarritakoarekin bat, berrinbertsioa egiteko epea amaitu den zergaldian, eta, gainera, haien zenbatekoaren %15 gehituko zaie.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa denean eskualdaketa jasotakoa baino, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ezingo da utzi zerga-oinarrian sartu gabe.

Artikulu honetan jasotako araubidea ez da bateragarria izango eskualdatutako zenbatekoa berrinbertitzen den elementuei lego-kiekeen beste edozein zerga-onurarekin, amortizatze askatasunari, amortizazio azeleratuari eta baterako amortizazioari dagokionez izan ezik.

Berrinbertitutako zenbatekoa handiagoa bada eskualdaketa guztira lortutakoa baino, soberakinari foru arau honetako V. titulu III. kapituluaren araututa dauden inbertsioagatiko kenkariak aplikatu ahal izango zaio, edo foru arau honetako 53. artikuluan aipatzen den erreserba gauzatzeko gai izango da.

37. artikulua.—*Jabetza intelektual edo industrialaren ustiatzeagatiko murrizketa*

1. Entitatearen jabetza intelektual edo industrialaren erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagaz egindako ustiatzeari dagozkion sarreren %30 ez da zerga-oinarrian sartuko, baldin eta lagapen hori aldi baterako egiten bada eta ez badakar lagapenean sartuta dauden ondare-elementuak besterentzerik.

Jabetza intelektual edo industrialaren entitateak berak garatu badu, berriz, sarreren %60 ez da zerga-oinarrian sartuko.

Literatur, arte edo zientzia obrak —zinemarako pelikulak barne—, laga daitezkeen eskubide pertsonalak —esaterako, irudi-eskubideak— eta aplikazio komertzialak besterik ez duten informatika-programak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzen datozen sarrerek ez dute inolara ere murrizketarako eskubiderik emango.

Ondorio horietarako, ulertuko da informatika-programa bat ez dagoela aurreko lerroaldean azaldutako kasuan, baldin eta programa ez-estandar bat bada, zergadunak berariaz garatu eta hobetutakoa, eta lagapen-hartzailearen ekoizpen-prozesuaren arabera beren-beregi ezarritako funtzionalitateak badiu harentzat, eta prozesu horretako elementu garrantzitsua bada.

2. Aurreko zenbakian ezartzen dena aplikatzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Lagapen-hartzaileak ekonomia-jardura batean erabili behar ditu erabilera- edo ustiapen-eskubideak, eta erabilera horren emaitza ezin da izan entitate lagatzaileari gastu kengarriak eragiten dizkion ondasun- edo zerbitzu-emateak, baldin eta, azken kasu

4. Los elementos patrimoniales objeto de la reinversión deberán permanecer en el patrimonio del contribuyente cumpliendo los requisitos establecidos en el apartado 1 de este artículo, salvo pérdidas justificadas, durante cinco años, o tres si se trata de bienes muebles desde que se materialice la reinversión, excepto que su vida útil conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de esta Norma Foral fuere inferior.

La transmisión de dichos elementos antes de la finalización del mencionado plazo determinará la integración en la base imponible de la parte de renta no integrada, excepto que el importe obtenido sea objeto de reinversión en los términos establecidos en el apartado 1 anterior dentro del plazo de los tres meses siguientes a la transmisión.

5. En caso de no realizarse la reinversión dentro del plazo señalado, se integrarán en la base imponible del período impositivo en que venció aquél las cantidades no integradas respecto de las que se haya producido el incumplimiento, adicionando a las mismas un 15 por 100 de su importe.

Sin perjuicio de lo previsto en el párrafo anterior, cuando se trate de entidades sometidas a los regímenes especiales de las agrupaciones de interés económico, españolas y europeas, y de uniones temporales de empresas, la parte de base imponible que hubiese correspondido a las rentas positivas obtenidas, deberá ser objeto de imputación a sus socios, de conformidad con lo previsto en el Capítulo III del Título VI de esta Norma Foral, en el período impositivo en que venció el plazo para realizar la reinversión, adicionando a la misma un 15 por 100 de su importe.

6 Cuando el importe reinvertido sea inferior al total de lo percibido en la transmisión, únicamente se permitirá la no integración de la parte proporcional que corresponde a la cantidad reinvertida.

El régimen previsto en el presente artículo será incompatible con cualesquiera otros beneficios tributarios respecto de los elementos en los que se reinvierta el importe de la transmisión, excepto en lo que se refiere a la libertad de amortización, la amortización acelerada y la amortización conjunta.

Quando el importe reinvertido sea superior al total del importe obtenido en la transmisión, el exceso podrá, en su caso, acogerse a las deducciones por inversión contempladas en el Capítulo III del Título V de esta Norma Foral o ser apto para la materialización de la reserva a que se refiere el artículo 53 de esta Norma Foral.

Artículo 37.—*Reducción por explotación de propiedad intelectual o industrial*

1. No se integrará en la base imponible el 30 por 100 de los ingresos correspondientes a la explotación mediante la cesión a terceros del derecho de uso o explotación de la propiedad intelectual o industrial de la entidad, siempre que tal cesión se realice con carácter temporal y no implique la enajenación de los elementos patrimoniales correspondientes.

El porcentaje de no integración en la base imponible será del 60 por 100 cuando la propiedad intelectual o industrial haya sido desarrollada por la propia entidad.

En ningún caso darán derecho a la reducción los ingresos procedentes de la cesión del derecho de uso o de explotación de obras literarias, artísticas o científicas, incluidas las películas cinematográficas, de derechos personales susceptibles de cesión, como los derechos de imagen ni de programas informáticos de exclusiva aplicación comercial.

A estos efectos, se entiende que un programa informático no se encuentra en el supuesto descrito en el párrafo anterior cuando se trate, efectivamente, de un programa no estándar, específicamente desarrollado y mejorado por el contribuyente y que presente funcionalidades específicas personalizadas para el cesionario en relación con su proceso productivo, del que constituya un elemento relevante.

2. Para la aplicación de lo dispuesto en el apartado anterior deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Que el cesionario utilice los derechos de uso o de explotación en el desarrollo de una actividad económica y que los resultados de esa utilización no se materialicen en la entrega de bienes o prestación de servicios por el cesionario que generen gastos

horretan, entitatea eta lagapen-hartzailea lotuta badaude.

b) Lagapen-hartzailearen egoitza ez da egon behar tributazio eza duen edo paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean, salbuespen honekin: egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean badauka, eta, gainera, zergadunak egiaztatzen badu, batetik, entitateak arrazoi ekonomiko baliozkoak dituela eratzeko eta jarduteko, eta, bestetik, enpresa-jarduerak egiten dituela.

3. Murrizketa hori kontuan hartu behar da foru arau honetako 60.7 artikuluan aipatutako kuota osoaren zenbatekoa zehazteko.

4. Halaber, zergadunak bere jabetza intelektual edo industrialaren eskuraketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren %5 eko murrizketa egingo du bere zerga-oinarrian, jabetza hori ekonomia-jardueraren bat egiteko erabiltzen badu eta haren gaineko jabetza osoa badu, eta aurreko 1. zenbakian ezarritako salbuespenak salbu. Murrizketa horrek ezin du gainditu jabetza intelektuala edo industrialia erabiltzen deneko ekonomia-jardueraren sarreren zenbatekoaren %0,5.

Murrizketa ez bada iritsi muga horretaraino, zergadunak muga horretara arteko diferentziaren adinako murrizketa egin ahal izango du, konpentsazio gisa, entitateak sortu eta erregistratu dituen marken erabileragatik, zergadunak bere ekonomia-jarduera garatzeko erabiltzen baditu.

Zenbaki honetan ezarritako murrizketa bateragarria da haren kalkuluan kontuan hartzen diren aktibo ez-materialen amortizazioagatik edo balio-narriaduraren ondoriozko galerengatikoen kenerekin.

38. artikulua.—Salbuespen partziala duten entitateak

1. Foru arau honetako 12.2 artikulua araberaz salbuespen partziala duten entitateek ez dituzte zerga-oinarrian sartuko errenta hauek:

a) Euren helburu soziala edo xede espezifiko osatzen duten jarduerak egitearen ondoriozkoak.

b) Kostu gabeko eskuratze eta eskualdatzeen ondoriozkoak, baldin eta batzuk eta besteak entitateon helburua edo xede espezifiko betetzeko erabiltzen edo egiten badira.

c) Xede edo helburu hori betetzeari afektatutako ondasunak kostu bidez eskualdatzean sortzen direnak, baldin eta lortutako zenbatekoa xede edo helburu horrekin lotutako inbertsio berrietarako erabiltzen bada.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa denean eskualdaketa jasotakoa baino, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proporzionala baino ezingo da utzi zerga-oinarrian sartu gabe.

Inbertsio berriak ondare-elementua eman edo eskura jarri den egunaren aurreko urtearen eta hurrengo hiru urteen barruan egin behar dira, eta bost urtez egon behar dira entitatearen ondarean, elementuon balio-bizitza, foru arau honetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, hori baino laburragoa izan ezean.

Inbertsio berria, berriz, kasuan kasuko ondare-elementuak eskura jartzen diren egunean joko da egindakotzat.

Inbertsioa ez bada egiten adierazitako epe horretan, sartu gabeko zenbatekoak, ez-betetzeari dagozkionak, epea amaitu den zergaldiko zerga-oinarrian sartuko dira, eta haien zenbatekoaren %15 gehituko zaie.

Elementu horiek aipatutako epea amaitu aurretik eskualdatuz gero, zergapetu gabeko errenta-zatiaren zerga-oinarrian sartuko da, lorturiko zenbatekoa berriro inbertitzen denean izan ezik.

2. Errentak zerga-oinarrian ez sartzeari buruz aurreko zenbakian aipatzen dena ez zaie aplikatuko ustiapen ekonomikoekin edo ondareekin lortutako errentei, ez eta arestian aipatutako eskualdaketen modukoak ez diren eskualdaketatik datozen errentei ere.

fiscalmente deducibles en la entidad cedente, siempre que, en este último caso, dicha entidad esté vinculada con el cesionario.

b) Que el cesionario no resida en un país o territorio de nula tributación o considerado como paraíso fiscal, excepto que resida en un Estado miembro de la Unión Europea y el contribuyente acredite que su constitución y operativa responde a motivos económicos válidos y que realiza actividades empresariales.

3. Esta reducción deberá tenerse en cuenta a efectos de la determinación del importe de la cuota íntegra a que se refiere el apartado 7 del artículo 60 de esta Norma Foral.

4. Asimismo, el contribuyente reducirá su base imponible en un importe equivalente al 5 por 100 del precio de adquisición o coste de producción de su propiedad intelectual o industrial, en tanto que la misma se aplique en el desarrollo de una actividad económica, siempre que disponga de la plena propiedad de la misma y con las mismas exclusiones que las establecidas en el apartado 1 anterior, sin que esta reducción pueda superar el 0,5 por 100 del volumen de ingresos de la actividad económica en cuyo desarrollo se aplique.

Si la reducción no ha alcanzado dicho límite, el contribuyente podrá reducir la diferencia en concepto de compensación por la utilización de las marcas registradas por la entidad que hayan sido generadas por la misma y que se apliquen en el desarrollo de su actividad económica.

La reducción establecida en este apartado será compatible con la deducción de la amortización o de las pérdidas por deterioro de valor que correspondan a los activos intangibles respecto de los que se calcula la misma.

Artículo 38.—Entidades parcialmente exentas

1. Las entidades parcialmente exentas a que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta Norma Foral, no integrarán en la base imponible las siguientes rentas:

a) Las que procedan de la realización de actividades que constituyan su objeto social o finalidad específica.

b) Las derivadas de adquisiciones y de transmisiones a título lucrativo, siempre que unas y otras se obtengan o realicen en cumplimiento de su objeto o finalidad específica.

c) Las que se pongan de manifiesto en la transmisión onerosa de bienes afectos a la realización del objeto o finalidad específica cuando el importe obtenido se destine a nuevas inversiones relacionadas con dicho objeto o finalidad.

Cuando el importe reinvertido sea inferior al total de lo percibido en la transmisión, únicamente se permitirá la no integración de la parte proporcional que corresponde a la cantidad reinvertida.

Las nuevas inversiones deberán realizarse dentro del plazo comprendido entre el año anterior a la fecha de la entrega o puesta a disposición del elemento patrimonial y los tres años posteriores y mantenerse en el patrimonio de la entidad durante cinco años, excepto que su vida útil, conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de esta Norma Foral, fuere inferior.

La nueva inversión se entenderá efectuada en la fecha en que se produzca la puesta a disposición de los elementos patrimoniales en que se materialice.

En caso de no realizarse la inversión dentro del plazo señalado, se integrarán en la base imponible del período impositivo en que venció aquél las cantidades no integradas respecto de las que se haya producido el incumplimiento, adicionando a las mismas un 15 por 100 de su importe.

La transmisión de dichos elementos antes del término del mencionado plazo determinará la integración en la base imponible de la parte de renta no gravada, salvo que el importe obtenido sea objeto de una nueva reinversión.

2. La no integración a que se refiere el apartado anterior no alcanzará a los rendimientos de explotaciones económicas, ni a las rentas derivadas del patrimonio, ni a las rentas obtenidas en transmisiones, distintas de las señaladas en él.

Alderdi politikoen ondareko ondasunen eta eskubideen kasuan, ondasun-eskubideon etekinak ez dira zerga-oinarrian sartuko. Alderdi politikoen ustiapen ekonomiko propioen ondoriozko etekinak ere ez dira sartuko, Zerga Administrazioak hala adierazten badu, aurrez eskatuta.

Artikulu honetan ezarritakoa dela-eta alderdi politikoei beren zerga-oinarrian sartzen ez dituzten errentei ez zaie aplikatuko atxikipenik ez konturako sarrerarik.

Erregelamendu bidez zehaztuko da alderdi politikoei zer egiaztapen-prozedura bete behar duten atxikipena egiteko betebeharretik salbuetsita geratzeko.

3. Ustiapen ekonomiko baten etekintzat joko dira norberaren lanetik eta kapitateik batera sortu diren etekinak, edo faktore horietariko bakar batetik sortuak ere bai, baldin eta zergadunak produkzio-bideak edo giza baliabideak (edo bietako bat) bere kontura antolatzea eskatzen badute, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean eta banaketan esku hartzeko helburuarekin.

39. artikulua.—Sarreraren arloko beste zuzenketa batzuk

1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko 1985 apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 artikuluan edo 36.1 artikuluko a), b) eta c) letretan aipatzen diren zerbitzuen ondorioz sortzen diren errentak, zerbitzuok enpresa mistoaren edo kapital erabat pribatuko enpresa sistemaren bidez ustiatzen direnean izan ezik (lege horrek Toki-araubidearen Oinarriak arautzen ditu, eta artikulu horiek lurraldeko, udalerriko eta probintziako toki-entitateen eskumenei buruzkoak dira).

Aurreko leerroaldean aipaturiko zerbitzuak Estatuaren edo autonomia-erkidegoen erabat mendekoak diren entitateek egiten badituzte, zerbitzu horietatik sortutako errentak ere ez dira sartuko zerga-oinarrian.

2. Zerga honen kontura atxikipena egin behar zaien zenbatekoen hartzaileak sortutako kontraprestazio osoa sartuko du zerga-oinarrian, jasotako zenbatekoari dagokionez.

Atxikipena egin ez bada edo egin beharrekoa baino txikiagoa egin bada, berriz, atxiki behar zitzaion zenbateko osoa kendu ahal izango du hartzaileak kuotan.

Sektore publikoak ordaindutako legezko ordainsariak direnean, aldiz, benetan atxikitako kopuruen kenkaria bakarrik egin dezake hartzaileak.

Sortutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez badago, Zerga Administrazioak hau konputatu ahal izango du haren zenbateko oso moduan: egin beharreko atxikipena kenduz benetan jasotakoa erakusten duen zenbatekoa. Kasu horretan, konturako atxikipen legez, benetan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko diferentzia kenduko da kuotan.

3. Zergadunek ez dituzte zerga-oinarrian sartuko foru arau honetako 31.5 artikuluan aipatutako partaidetza-maileguak eman ez lortu dituzten errentak, baldin eta entitate mailegu-hartzailearen mozkinen ondorioz emandako ordainsariak badira. Dena dela, ez da halakotzat joko interes finkoaren ondoriozko ordainsaria, betiere mailegua erabiltzen bada jarduera edo enpresa-proiektu berrien garapena finantzatzeko, eta jarduera edo proiektu horiek ez badiuzte aurretik egiten ez entitate mailegu-emaileak, ez mailegu-hartzaileak, ez foru arau honetako 42. artikuluan azaldutako moduan haiei lotutako pertsona edo entitateek.

Zenbaki honetan ezarritakoa aplikatu ahal izateko, zergadunak, zuzenean edo zeharka, %25eko partaidetza izan behar du, gutxienez, entitate mailegu-hartzailearen kapitalean edo funts propioetan, edo %15ekoa, berriz, partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatutako batean kotizatzen badute. Partaidetza hori lehendik eduki behar da, banaturiko etekin aldakorra eska daitekeen eguna baino urtebete lehenagotik jarraian, edo, bestela, epe hori betetzeko behar beste denboran eutsi behar zaio, geroago, partaidetza-portzentaje horri. Gainera, partaidetza hori modu jarraituan eduki behar da ordaindutako interes aldakorra galdagarria den egunaren aurreko urtean, edo, bestela, gero ere partaidetza-portzentaje horixe bera mantendu behar da, epe hori betetzeko gertatzen den denbora osoan.

Tratándose de partidos políticos, no se integrarán en la base imponible los rendimientos procedentes de los bienes y derechos que integren su patrimonio. Tampoco se integrarán en la base imponible los rendimientos procedentes de sus explotaciones económicas propias, si así se declara por la Administración tributaria, previa solicitud.

Las rentas obtenidas por los partidos políticos, no integradas en su base imponible en virtud de lo establecido en este artículo, no estarán sometidas a retención ni ingreso a cuenta.

Reglamentariamente se determinará el procedimiento de acreditación de los partidos políticos a efectos de la exclusión de la obligación de retener.

3. Se considerarán rendimientos de una explotación económica todos aquéllos que procediendo del trabajo personal y del capital conjuntamente, o de uno solo de estos factores, supongan por parte del contribuyente la ordenación por cuenta propia de los medios de producción y de recursos humanos o de uno de ambos con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios.

Artículo 39.—Otras correcciones en materia de ingresos

1. No se integrarán en la base imponible las rentas derivadas de la prestación de cualquiera de los servicios comprendidos en el apartado 2 del artículo 25 o en las letras a), b) y c) del apartado 1 del artículo 36 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, de competencia de las entidades locales territoriales, municipales y provinciales, excepto cuando se exploten por el sistema de empresa mixta o de capital íntegramente privado.

La no integración también se aplicará cuando los servicios referidos en el párrafo anterior se presten por entidades íntegramente dependientes del Estado o de las Comunidades Autónomas.

2. El perceptor de cantidades sobre las que deba retenerse a cuenta de este impuesto computará aquéllas por la contraprestación íntegra devengada.

Cuando la retención no se hubiera practicado o lo hubiera sido por importe inferior al debido, el perceptor deducirá de la cuota la cantidad que debió ser retenida.

En el caso de retribuciones legalmente establecidas que hubieran sido satisfechas por el sector público, el perceptor sólo podrá deducir las cantidades efectivamente retenidas.

Cuando no pudiera probarse la contraprestación íntegra devengada, la Administración tributaria podrá computar como importe íntegro una cantidad que, una vez restada de ella la retención procedente, arroje la efectivamente percibida. En este caso se deducirá de la cuota, como retención a cuenta, la diferencia entre lo realmente percibido y el importe íntegro.

3. Los contribuyentes no integrarán en su base imponible las rentas obtenidas por la concesión de los préstamos participativos a que se refiere el apartado 5 del artículo 31 de esta Norma Foral en la medida en que las mismas sean objeto de remuneración como consecuencia de los beneficios de la entidad receptora del préstamo, no teniendo tal consideración la remuneración derivada del interés fijo, siempre que el préstamo se destine a la financiación del desarrollo de nuevas actividades o proyectos empresariales, que no se vinieran desarrollando con anterioridad ni por la entidad prestamista ni por la prestataria ni por personas o entidades vinculadas a las mismas en los términos establecidos en el artículo 42 de esta Norma Foral.

Para la aplicación de lo previsto en este apartado, será preciso que el contribuyente participe, directa o indirecta, en el capital o en los fondos propios de la entidad prestataria en, al menos, el 25 por 100, o el 15 por 100 si las acciones de la sociedad participada cotizan en un mercado secundario organizado, y que la citada participación se hubiese poseído de manera ininterrumpida durante el año anterior al día en que sea exigible el interés variable que se satisfaga o, en su defecto, siempre que se mantenga ese porcentaje de participación posteriormente durante el tiempo necesario para completar dicho plazo.

Errentak zerga-oinarrian ez sartzeari buruz zenbaki honetan araututakoak ezin ditu jarraian azalduko diren zenbatekoa biak gainditu. Batetik, ezin du gainditu entitate mailegu-hartzailearen mozkinen %20, zeinen kargura ordaintzen baita interes aldakor hori; horretarako, partaidetza-maileguaren ordaintekari dagokion gastua konputatu aurretik kalkulaturako mozkinak hartuko dira, zergadunari bere partaidetza-graduaren arabera egotzi ahal zaizkionak. Bestetik, ezin du beste zenbateko hau gainditu: partaidetza-maileguaren zergaldiko batez besteko saldoari indarrean dagoen berandutzeagatik interes-tasaren %150 aplikatuz ateratzen dena.

Aurreko zenbakian ezarritakoari jarraituz, zerga-oinarrian sartzen ez den errenta honako helburu hauetakoren bat betetzeko erabiliko da:

a) Foru arau honetako 51. eta 53. artikuluetan aipaturako erre-serbak zuzkitzeko. Erreserba horien barruan eduki behar da dena delako zenbatekoa, baliaezin, aipaturako manuetan ezarritako moduan, eta ezingo dira aplikatu bi manuotan araututa dauden zerga-oinarriaren murrizketak, zenbaki honetan xedaturikoa aplikatuz zerga-oinarritik kanpo utzi den errentari dagozkion diru-kopuruei dagokienez.

b) Zenbaki honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten partaidetza-mailegu gehiago emateko, interesak jasotzen diren zergaldian bertan edo hurrengoan.

Aurreko lerroaldean xedatutako bete ezean, ez-betetzea gertatu den zergaldiko zerga-oinarrian sartu beharko dira zerga-oinarrian sartu gabeko errenta horiek, eta foru arau honetako 51. eta 53. artikuluetan erre-serba mantentzen ez denerako ezarritako araubidea aplikatuko da, edo, b) letrako kasuan, haien zenbatekoaren %5 gehituko zaie errentei.

4. Aurrezki-kutxek ez dituzte zerga-oinarrian sartuko euren gizarte-ongintzarako ekintzari afektaturako inbertsioak eskualdartzu lortutako errentak.

5. Ez dira zerga honen zerga-oinarrian sartuko honako inguruabar hauek direla-eta agerian jartzen diren errenta positiboak:

a) Europar Batasunaren nekazaritza-politikatik datozen laguntzak jasotzea, haien zergatia, betiere, honako hauetako bat bada: esnegintzari, mahastizaintzari nahiz madariaren, mertxikaren, nektarinaren, azukre-erremolatxaren eta azukre-kanaberaren laborantzari behin betiko uztea, edo bananondoak, sagarondoak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauztea.

b) Europako Erkidegoko arrantza-politikako honako laguntza hauek jasotzea:

- 1) Arrantza-jarduera behin betiko uztea.
- 2) Arrantza-ontzi baten arrantza-jarduera behin betiko geldiaraztea.
- 3) Hirugarren herrialdeetan sozietate mistoak eratzearen ondoriozko eskualdaketak edo sozietateok eratzekoak.

c) Arrantza-ontzi bat besterentzea, baldin eta eskuratzailak, besterentze-datatik urtebeteko epea igarotakoan, hura zatitzeari ekiten badio eta arrantza-jarduera behin betiko geldiarazteko den Erki-degoaren laguntza jasotzen badu.

d) Enpresa-jarduerak egiteari afektatuta dauden ondare-elementuek sute, uholde edo hondoratzeengatik jasandako suntsipena konpontzeko diren laguntza publikoak jasotzea.

e) Sustapen Ministerioak eta arlo honetan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak errepideko garraio-jarduera behin betiko uzteagatik emandako diru-laguntzak, laguntza horiek emateko arautegi erregulatzailean ezarritako baldintzak betetzen dituzten garraiolariari ordaindutakoak badira.

f) Abereak nahitaez hiltzeagatik kalte-ordain publikoak jasotzea, abereen epidemia edo gaitzak desagerrarazteko jarduketak direla eta.

Xedapen hau ugalketarako animaliei baino ez dagokie.

La no integración regulada en este apartado no podrá superar el 20 por 100 de los beneficios de la entidad prestataria con cargo a los que se satisface el interés variable, calculados antes de computar el gasto correspondiente a la retribución del préstamo participativo, atribuibles al contribuyente en función de su grado de participación, ni suponer un importe superior a la cantidad resultante de aplicar al saldo medio del préstamo participativo durante el período impositivo el 150 por 100 del tipo de interés de demora vigente.

El importe de la renta no integrada en la base imponible en virtud de lo establecido en el este apartado deberá destinarse a alguno de los siguientes fines:

a) Dotación de las reservas a que se refieren los artículos 51 y 53 de esta Norma Foral, debiendo mantenerse dentro de las mismas el importe correspondiente con carácter indisponible en los términos establecidos por los mencionados preceptos, sin que resulten de aplicación las reducciones de la base imponible reguladas en ambos preceptos en relación con las cantidades correspondientes a la renta no integrada por aplicación de lo dispuesto en este apartado.

b) La concesión de nuevos préstamos participativos que cumplan los requisitos establecidos en el presente apartado en el período impositivo en que se perciban los intereses o en el inmediato siguiente.

El incumplimiento de lo dispuesto en el párrafo anterior implicará la obligación de incluir en la base imponible del período impositivo en que se produzca el incumplimiento las rentas no integradas, con aplicación del régimen previsto para el incumplimiento de la obligación de mantenimiento de la reserva en los artículos 51 y 53 de esta Norma Foral o, en el supuesto de la letra b), adicionando a las mismas un 5 por 100 de su importe.

4. Las Cajas de Ahorro no integrarán en su base imponible las rentas derivadas de la transmisión de inversiones afectas a la obra benéfico-social de las mismas.

5. No se integrarán en la base imponible de este Impuesto las rentas positivas que se pongan de manifiesto por:

a) La percepción de ayudas de la política agraria comunitaria por abandono definitivo de la producción lechera o del cultivo del viñedo, de peras, de melocotones o de nectarinas, o por el arranque de plataneras o de plantaciones de manzanos, peras, melocotoneros y nectarinas, así como por el abandono definitivo del cultivo de la remolacha azucarera y de la caña de azúcar.

b) La percepción de las siguientes ayudas de la política pesquera comunitaria:

- 1) Abandono definitivo de la actividad pesquera.
- 2) Paralización definitiva de la actividad pesquera de un buque.

3) Transmisión para o como consecuencia de la constitución de sociedades mixtas en terceros países.

c) La enajenación de un buque pesquero cuando, en el plazo de un año desde la fecha de enajenación, el adquirente proceda al desguace del mismo y perciba la correspondiente ayuda comunitaria por la paralización de su actividad pesquera.

d) La percepción de ayudas públicas que tengan por objeto reparar la destrucción, por incendio, inundación o hundimiento, de elementos patrimoniales afectos al ejercicio de actividades empresariales.

e) La percepción de las ayudas al abandono de la actividad de transporte por carretera satisfechas por el Ministerio de Fomento y por el Departamento del Gobierno Vasco competente en la materia a transportistas que cumplan los requisitos establecidos en la normativa reguladora de la concesión de dichas ayudas.

f) La percepción de indemnizaciones públicas, a causa del sacrificio obligatorio de la cabaña ganadera, en el marco de actuaciones destinadas a la erradicación de epidemias o enfermedades.

Esta disposición sólo afectará a los animales destinados a la reproducción.

Zenbaki honetan xedatutakoaren arabera zerga-oinarrian sartuko ez den errenta kalkulatzeko, kontuan hartuko dira bai jasotako diru-laguntzen zenbatekoa edo, bestela, aurreko c) letraren kasuan, lortutako errentarena; orobat hartuko dira kontuan jardueri afektatutako elementuetan gertatzen diren ondare-galerak. Diru-laguntza horien zenbatekoa elementuotan gertatutako galerak baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa zerga-oinarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez dagoenean, berriz, laguntzen zenbatekoa baino ez da kargatik libre geratuko, edo, aurreko c) letraren kasuan, lortutako errenta.

6. Ekitaldiko sarrera-kontu batean abonatu deuseztatzen diren hornidurei dagokien zenbatekoa ez da zerga-oinarrian sartuko, baldin eta hornidura horietarako zuzkidura ez bada jo gastu kengarritzat.

7. Alderdi politikoen eta haiei lotutako pertsona juridikoen errenta positiboak ez dira zerga-oinarrian sartuko, baldin eta errenta horiek agerian jarri badira 1998ko abenduaren 15eko 43/1998 Legean xedatzen diren ondare-izaerako ondasun eta eskubideen itzulketaren edo diruzko konpentsazioaren ondorioz (lege horrek 1936-1939 bitarteko erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz bahitutako ondasun eta eskubideak itzuli edo konpentsatzen dizkie alderdi politikoei).

8. Foru arau honetako 14. artikuluan aipatutako ondare-sozietateek ez dute zergaldi bakoitzeko zerga-oinarrian sartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 9.24 artikuluan aipatzen den zenbatekoa, entitateen dibidenduak jasotzeari edo haien mozkinetan parte hartzeari dagokiona.

Zergaldia hamabi hilabete baino laburragoa denean, aurreko lerroaldean aipatutako zerga-oinarrian sartzen ez den zenbatekoa zergaldiaren iraupenaren proportzioan murriztuko da.

IV. KAPITULUA

BALIOESPEN-ERREGELAN ARLOKO ZUZENKETAK ETA ABUSUAREN AURKAKO NEURRIAK

40. artikulua.—*Balioespen-erregelak: erregela orokorra eta erregela bereziak kostu gabeko eskualdaketetan eta sozietate-eragiketetan*

1. Ondare-elementuak Merkataritzako Kodeak ezartzen dituen irizpideen arabera balioetsiko dira. Nolanahi ere, arrazoizko balioaren irizpidea aplikatzeko sortzen diren balio-aldaketek ez dute zerga-ondoriozko izango aldaketok galera-irabazien kontuari egotzi behar ez zaizkion bitartean.

Kontabilitateko errealizazioen zenbatekoa ez da zerga-oinarrian sartuko, salbu eta errealizazio horiek egiten badira, hain zuzen ere, haien zenbatekoa galera-irabazien kontuan sartzeri behar duten legezko edo erregelamenduzko arauak direla eta. Zerga-oinarrian sartu gabeko errealizazioaren zenbatekoak ez du ekarriko, zergari dagokionez, errealizatutako elementuen balioa handiagoa izatea.

2. Honako ondare-elementu hauek beren merkatuko balio normalean balioetsiko dira:

- a) Kostu bidez eskualdatu edo eskuratutakoak.
- b) Entitateei ekarritakoak eta kontraprestazioan hartutako baloreak.
- c) Bazkideei eskualdatutakoak, kasu hauetan: sozietatearen desegitea, bazkideen banantzea, ekarpenen itzulketarekin egiten diren kapital-murrizketak, jaulkipen-sariaren banaketa eta mozkin banaketa.
- d) Bat-egitea, zatiketa oso edo partziala eta aktibo eta pasiboaren lagapena direla bide eskualdatutakoak.
- e) Trukatzeetan eskuratutakoak.
- f) Trukean edo bihurtetan eskuratutakoak.

Merkatuko balio normaltzat hartuko da, hain zuzen, alderdi independenteek merkatuko baldintza normaletan adostuko luketena. Balio hori kalkulatzeko, foru arau honetako 42.4 artikuluan aurreikusitako metodoak aplikatuko dira.

Para calcular la renta que no se integrará en la base imponible de conformidad con lo dispuesto en este apartado, se tendrá en cuenta tanto el importe de las ayudas percibidas o, en el caso de la letra c) anterior, la renta obtenida, como las pérdidas patrimoniales que, en su caso, se produzcan en los elementos afectos a las actividades. Cuando el importe de estas ayudas sea inferior al de las pérdidas producidas en los citados elementos, podrá integrarse en la base imponible la diferencia negativa. Cuando no existan pérdidas sólo se excluirá de gravamen el importe de las ayudas o, en el caso de la letra c) anterior, la renta obtenida.

6. No se integrará en la base imponible el importe correspondiente a la eliminación de provisiones con abono a una cuenta de ingresos del ejercicio, si la dotación a las mismas no hubiese tenido la consideración de gasto deducible.

7. No se integrarán en la base imponible de los partidos políticos y de las personas jurídicas a ellos vinculadas las rentas positivas que se pongan de manifiesto como consecuencia de la restitución de bienes y derechos de contenido patrimonial o de la compensación pecuniaria dispuestas en la Ley 43/1998, de 15 de diciembre, de Restitución o Compensación a los Partidos Políticos de Bienes y Derechos Incautados en aplicación de la normativa sobre responsabilidades políticas del período 1936-1939.

8. Las sociedades patrimoniales a que se refiere el artículo 14 de esta Norma Foral no integrarán en su base imponible en cada período impositivo el importe a que se refiere el número 24 del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente a la percepción de dividendos o participación en beneficios de entidades.

Quando el período impositivo tenga una duración inferior a doce meses, la cantidad que no se integrará en la base imponible a que se refiere el párrafo anterior se reducirá proporcionalmente a la duración del citado período impositivo.

CAPÍTULO IV

CORRECCIONES EN MATERIA DE REGLAS DE VALORACIÓN Y MEDIDAS ANTIABUSO

Artículo 40.—*Reglas de valoración: regla general y reglas especiales en los supuestos de transmisiones lucrativas y operaciones societarias*

1. Los elementos patrimoniales se valorarán de acuerdo con los criterios establecidos en el Código de Comercio. No obstante, las variaciones de valor originadas por aplicación del criterio del valor razonable no tendrán efectos fiscales mientras no deban imputarse a la cuenta de pérdidas y ganancias.

El importe de las revalorizaciones contables no se integrará en la base imponible, excepto cuando se lleven a cabo en virtud de normas legales o reglamentarias que obliguen a incluir su importe en la cuenta de pérdidas y ganancias. El importe de la revalorización no integrada en la base imponible no determinará un mayor valor, a efectos fiscales, de los elementos revalorizados.

2. Se valorarán por su valor normal de mercado los siguientes elementos patrimoniales:

- a) Los transmitidos o adquiridos a título lucrativo.
- b) Los aportados a entidades y los valores recibidos en contraprestación.
- c) Los transmitidos a los socios por causa de disolución, separación de los mismos, reducción del capital con devolución de aportaciones, reparto de la prima de emisión y distribución de beneficios.
- d) Los transmitidos en virtud de fusión, escisión total o parcial y cesión global del activo y del pasivo.
- e) Los adquiridos por permuta.
- f) Los adquiridos por canje o conversión.

Se entenderá por valor normal del mercado el que hubiera sido acordado en condiciones normales de mercado entre partes independientes. Para determinar dicho valor se aplicarán los métodos previstos en el apartado 4 del artículo 42 de esta Norma Foral.

3. Aurreko zenbakiko a), b), c) eta d) letretan aurreikusitako kasuetan, entitate eskualdatzaileak bere zerga-oinarrian sartuko du eskualdatutako elementuen merkatuko balio normalaren eta kontabilitateko balioaren arteko diferentzia.

Aurreko zenbakiko e) eta f) letretan aurreikusitako kasuetan, berriz, entitateak bere zerga-oinarrian sartuko du eskuratutako elementuen merkatuko balio normalaren eta emandako elementuen kontabilitateko balioaren arteko diferentzia.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da aplikatuko sozietate batek bere akzioen edo partaidetzen balio nominala aldatu baino egiten ez duenean, akziodunen partaidetza-portzentajea aldatu gabe eta ekarpenen itzulketarik gabe. Orduan, akzio edo partaidetza horiei ez zaie merkatuko balio normala emango.

Dohaineko eskuratzean, eskuratutako ondare-elementuaren merkatuko balio normala sartuko du entitate eskuratzzaileak bere zerga-oinarrian.

Artikulu honetan aipatzen diren errentak errenta horien jatorri diren eragiketarik egiten diren zergaldian sartuko dira zerga-oinarrian.

Zenbaki honetan aurreikusten denaren ondorioetarako, dirulaguntza publikoak ez dira dohaineko eskuratzetzat hartuko.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko kirol federazio eta kirol klubei egindako dohaintzei —foru arau honetako 31.4 artikuluan aipatutakoei—, haien xede propioak lortzeko erabil badaitzke.

4. Ekarpenen itzulketarekin egiten den kapital-murrizketaren kasuan, partaidetzaren kontabilitateko balioak jasotako elementuen merkatuko balio normala gainditzen duen zatia sartuko da bazkideen zerga-oinarrian.

Erregela bera aplikatuko da akzio edo partaidetzen jaulkipen-primaren banaketan.

5. Mozkin-banaketan, hartutako elementuen merkatuko balio normala sartuko da bazkideen zerga-oinarrian.

6. Entitateak desegin edo bazkideak banantzen direnean, hartutako elementuen merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitateko balioaren arteko diferentzia sartuko da bazkideon zerga-oinarrian.

7. Bat-egitean eta zatiketa osoan edo partzialean, hartutako partaidetzaren merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitateko balioaren arteko diferentzia sartuko da bazkideen zerga-oinarrian.

8. Kapital-murrizketaren helburua ez bada ekarpenak itzultzea, murrizketa horrek ez die zerga-oinarrian sar daitezkeen errentarik (ez positiborik ez negatiborik) ekarriko bazkideei.

9. Ibilgetu materialeko ondare-elementuak, ibilgetu ez-materiala, higiezineta inbertsioak edo salmentarako mantendu diren aktibo ez-korrante moduan sailkatutako elementuak eskualdatzean lortzen diren errenta positiboak zerga-oinarrian sartzeko, errenta horietan baliogalera baten zenbatekoa kenduko da, eta betiere errenta horien mugarekin. Hau da kenduko den baliogalera hori, eskualdatutako elementuei dagokienez: legez baimendutako azken eguneratetik edo elementu hori eskuratu zen egunetik —bigarren egun hori gerokoa bada— gertatutako moneta-baliogaleraren zenbatekoa. Zenbateko hori honako erregela hauen arabera kalkulatu da:

a) Biderkatu egingo dira, batetik, eskualdatutako ondare-elementuaren eskuraketa-prezioa edo ekoizpen-kostua eta haiei dagozkien amortizazioak, eta, bestetik, erregelamendu bidez ezartzen diren koefizienteak.

b) Aurreko letran ezarritakoa aplikatuz zehazten diren kopuruaren arteko diferentziak gutxitu egingo du eskualdatutako ondare-elementuaren kontabilitateko balioa.

10. Foru arau honetako 48. artikuluan xedatutakoa aplikatuz euren errentak zerga honen zerga-oinarrian sartu zaizkien entitate ez-egoiliarren zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza eskualdatzetik sortutako errenta kalkulatzeko, partaidetza horien

1. Artikulu honetan xedatutakoa aurreko artikuluan aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide edo partaideei aplikatuko zaie, hala zerga honen kargapeko direnei, nola errentak establezimendu iraunkorraren bitartez lortzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko direnei.

2. Aurreko zenbakian aipatutako zergadunek kontzeptu hauek sartuko dituzte zerga-oinarrian:

a) Akzioak edota partaidetzak eskualdatzeagatik edo haien errenboltoagatik lortutako errenta, positiboa edo negatiboa.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeak banatutako mozkinak. Mozkin horiek ez dute eskubiderik emango foru arau honetako 33. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, ez eta, hala badagokio, 60. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko ere.

3. Artikulu honetako 2. zenbakian aurreikusitako araubidea aplikatu ahal izango zaie Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an emandako 85/611/EEE Zuzentarauan araututako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei, entitateok foru arau honetako 81. artikuluan aipatzen diren horietakoak ez badira, Europar Batasuneko estatu kide batean eratuak badira, egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean badute eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro berezian inskribaturik badaude, Espainiako egoiliar diren entitateek merkatura ditzaten.

80. artikulua.—Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzetatik eratorritako errenta kontabilizatuak

Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzetatik eratorri diren eta zergadunak kontabilitatean jaso dituen edo jaso behar dituen errenten zenbatekoa zerga-oinarrian sartuko da.

81. artikulua.—Paradis fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide eta partaideen tributazioa

1. Zerga honen zergadunek edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunetatik errentak establezimendu iraunkorraren bitartez lortzen dituzten zergadunek partaidetza badute paradis fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeetan, orduan zerga-oinarrian sartuko dute partaidetzak zergaldiaren itxiera-egunean duen likidazio-balioaren eta partaidetzaren eskuraketa-balioaren arteko diferentzia positiboa.

Zerga-oinarrian sartutako kopurua eskuraketa-balio handiagotzat joko da.

2. Inbertsio kolektiboko entitateak banatutako mozkinak ez dira zerga-oinarrian sartuko, eta partaidetzaren eskuraketa-balioa gutxituko dute.

3. Kontrakoaren frogarik ezean, aurreko 1. zenbakian aipatutako diferentzia akzio edo partaidetzaren eskuraketa-balioaren %15 dela ulertuko da.

VI. KAPITULUA

ZERGA-BATERAKUNTZAREN ARAUBIDEA

82. artikulua.—Definizioa

1. Talde fiskalek kapitulu honetan ezarritako zerga-araubidea hautatu ahal izango dute. Horrela eginez gero, taldea osatzen duten entitateek ez dute banakako araubidean tributatu.

2. Banakako zerga-araubidetzat joko da, hain zuzen, entitate bakoitzari legokiokeena zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzekoa ez bazaie.

83. artikulua.—Zergaduna

1. Talde fiskala da zergaduna.

2. Talde fiskalaren ordezkaria sozietate nagusia da; berak bete behar ditu zerga-baterakuntzaren araubideko zerga-betebehar materialak eta formalak.

Artículo 79.—Tributación de los socios o partícipes de las instituciones de inversión colectiva

1. Lo dispuesto en este artículo será de aplicación a los socios o partícipes sujetos a este Impuesto o al Impuesto sobre la Renta de No Residente que obtengan sus rentas mediante establecimiento permanente, de las instituciones de inversión colectiva a que se refiere el artículo anterior.

2. Los contribuyentes a los que se refiere el apartado anterior integrarán en la base imponible los siguientes conceptos:

a) La renta, positiva o negativa, obtenida como consecuencia de la transmisión de las acciones o participaciones o del reembolso de estas últimas.

b) Los beneficios distribuidos por la institución de inversión colectiva. Estos beneficios no darán derecho a la aplicación de lo dispuesto en el artículo 33 ni, en su caso, en el artículo 60 de esta Norma Foral.

3. El régimen previsto en el apartado 2 de este artículo será de aplicación a los socios o partícipes de instituciones de inversión colectiva, reguladas por la Directiva 85/611/CEE del Consejo, de 20 de diciembre de 1985, distintas de las previstas en el artículo 81 de esta Norma Foral, constituidas y domiciliadas en algún Estado miembro de la Unión Europea e inscritas en el registro especial de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, a efectos de su comercialización por entidades residentes en España.

Artículo 80.—Rentas contabilizadas de las acciones o participaciones de las instituciones de inversión colectiva

Se integrará en la base imponible el importe de las rentas contabilizadas o que deban contabilizarse por el contribuyente derivadas de las acciones o participaciones de las instituciones de inversión colectiva.

Artículo 81.—Tributación de los socios o partícipes de las instituciones de inversión colectiva constituidas en países o territorios considerados como paraísos fiscales

1. Los contribuyentes de este Impuesto o del Impuesto sobre la Renta de No Residentes que obtengan sus rentas mediante establecimiento permanente, que participen en instituciones de inversión colectiva constituidas en países o territorios considerados como paraísos fiscales, integrarán en la base imponible la diferencia positiva entre el valor liquidativo de la participación al día del cierre del período impositivo y su valor de adquisición.

La cantidad integrada en la base imponible se considerará mayor valor de adquisición.

2. Los beneficios distribuidos por la institución de inversión colectiva no se integrarán en la base imponible y minorarán el valor de adquisición de la participación.

3. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que la diferencia a que se refiere el apartado 1 anterior es el 15 por 100 del valor de adquisición de la acción o participación.

CAPÍTULO VI

RÉGIMEN DE CONSOLIDACIÓN FISCAL

Artículo 82.—Definición

1. Los grupos fiscales podrán optar por el régimen tributario previsto en este Capítulo. En tal caso, las entidades que en ellos se integran no tributarán en régimen individual.

2. Se entenderá por régimen individual de tributación el que correspondería a cada entidad en caso de no ser de aplicación el régimen de consolidación fiscal.

Artículo 83.—Contribuyente

1. El grupo fiscal tendrá la consideración de contribuyente.

2. La sociedad dominante tendrá la representación del grupo fiscal y estará sujeta al cumplimiento de las obligaciones tributarias materiales y formales que se deriven del régimen de consolidación fiscal.

3. Sozietate nagusiak eta sozietate filialak banakako tribu-tazio araubidearen ondoriozko zerga-betebeharrak ere izango dituzte, zerga-zorra ordaintzeari dagokiona izan ezik.

4. Sozietate nagusiari edo talde fiskaleko edozein entitate-ri —sozietate nagusiak horren berri duela— egiten zaizkion egiaz-tapen edo ikerketako administrazio-jarduketek eten egingo dute tal-de fiskal horri eragiten dion Sozietateen gaineko Zergaren preskripzio-epea.

84. artikulua.—Zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatetik eratorritako erantzukizun tributarioak

Talde fiskaleko sozietateek solidarioki ordainduko dute zerga-zorra, zehapenak alde batera utzita.

85. artikulua.—Talde fiskalaren definizioa. Sozietate nagusia. Sozietate filialak

1. Talde fiskala hau da: sozietate nagusi batek eta haren sozie-tate filial guztiak eraturako sozietate multzoa, foru arau honetako 2.5 artikuluan xedaturakoaren kalterik gabe; egoitza Espainian duten sozietate anonimoak, sozietate mugatuak edo sozietate komandi-tarioak izan behar dira, edo artikuluko 3. zenbakian aipa-zen diren kreditu-entitateak.

2. Sozietate nagusizat joko da honako betekizun hauek bete-zen dituen:

a) Aurreko zenbakian ezarritako forma juridikoetako bat iza-tea edo, bestela, nortasun juridikoa izatea, eta Sozietateen gaineko Zergaren mende egotea eta hartatik salbuetsi gabe. Entitate ez-egoiliarrek Bizkaiko Lurralde Historikoan dituzten establezimendu iraunkorrak sozietate nagusizat joko dira partaidetzak establezi-mendu horri afektatuta dituzten sozietateekiko.

b) Tributazio-araubide hau aplika daitekeen zergaldiko lehen egunean beste sozietate baten kapitalean %75eko partaidetza edo handiagoa edukitzea, zuzenean zein zeharka, edo %70ekoa edo handiagoa, sozietatearen akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta badaude. Azken portzentaje hori aplikatu-ko da beste sozietate batzuen kapitalean zeharkako partaidetza edu-kiz gero ere, baldin eta partaidetza-portzentaje hori lortzen bada akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta dituz-ten sozietate filialen bitartez.

c) Partaidetza zergaldi osoan mantentzea.

Partaidetza zergaldi osoan zehar mantentzeko betebeharra ez da galdutako partaidetutako entitate desegin egiten bada.

d) Ez da izan behar egoitza Espainiako lurraldean duen eta sozietate nagusizat jotzeko betekizunak betetzen dituen beste baten filiala.

e) Ezin da egon Espainiako eta Europako ekonomia-intere-seko elkartzeen araubide berezian, ez eta aldi baterako enpresa-elkarteen araubide berezian ere (foru arau honetako VI. tituluko III. kapituluan ezarri da), eta ezin da izan ondare-sozietatea, foru arau honetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Espainiako lurraldean ez-egoiliarren diren establezimen-du iraunkorrak badira, entitate horiek ez dira izan behar sozietate bat nagusizat jotzeko baldintzak betetzen dituen Espainiako lurraldean egoiliar den beste entitate baten filialak, eta Espainia-rekin nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena (informazio-trukearen klausula duena) sinatuta duen lurralde edo herrialde bateko egoiliarra izatea.

3. Sozietate bat sozietate filializat joko da, baldin eta sozie-tate nagusiak haren gainean duen partaidetzak aurreko zenbaki-o b) eta c) letretako betekizunak betetzen baditu.

Filializat joko dira, halaber, 1985eko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8.3.d) artikuluan aipatzen den babes-sistema instituzional batean sartuta dauden kreditu-entitateak (lege hori, hain zuzen ere, finantza-bitartekarien inbertsio-koefizientei, baliabide propioei eta informazio-obligazioei buruzkoa da), baldin eta baldintza hauek betetzen badira: batetik, sistemako entitate zentrala talde fis-kaleko kidea bada; bestetik, sistema eratzen duten entitateek emai-

3. La sociedad dominante y las sociedades dependientes esta-rán igualmente sujetas a las obligaciones tributarias que se deri-van del régimen de tributación individual, excepción hecha del pago de la deuda tributaria.

4. Las actuaciones administrativas de comprobación o investigación realizadas frente a la sociedad dominante o frente a cualquier entidad del grupo fiscal, con el conocimiento formal de la sociedad dominante, interrumpirán el plazo de prescripción del Impuesto sobre Sociedades que afecta al citado grupo fiscal.

Artículo 84.—Responsabilidades tributarias derivadas de la aplicación del régimen de consolidación fiscal

Las sociedades del grupo fiscal responderán solidariamente del pago de la deuda tributaria, excluidas las sanciones.

Artículo 85.—Definición del grupo fiscal. Sociedad dominante. Socie-dades dependientes

1. Se entenderá por grupo fiscal el conjunto de sociedades anónimas, limitadas y comanditarias por acciones, así como las enti-dades de crédito a que se refiere el apartado 3 de este artículo, resi-dentes en territorio español formado por una sociedad dominante y todas las sociedades dependientes de la misma, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 2 de esta Norma Foral.

2. Se entenderá por sociedad dominante aquélla que cumpla los requisitos siguientes:

a) Tener alguna de las formas jurídicas establecidas en el apartado anterior o, en su defecto, tener personalidad jurídica y estar sujeta y no exenta al Impuesto sobre Sociedades. Los estableci-mientos permanentes de entidades no residentes situados en el Territorio Histórico de Bizkaia podrán ser considerados socieda-des dominantes respecto de las sociedades cuyas participaciones estén afectas al mismo.

b) Que tenga una participación, directa o indirecta, al menos, del 75 por ciento del capital social de otra u otras socie-dades el primer día del período impositivo en que sea de aplica-ción este régimen de tributación, o de, al menos, el 70 por 100 del capital social, si se trata de sociedades cuyas acciones estén admi-tidas a negociación en un mercado regulado. Este último porcen-taje también será aplicable cuando se tengan participaciones indi-rectas en otras sociedades siempre que se alcance dicho porcen-taje a través de sociedades dependientes cuyas acciones estén admitidas a negociación en un mercado regulado.

c) Que dicha participación se mantenga durante todo el perí-odo impositivo.

El requisito de mantenimiento de la participación durante todo el período impositivo no será exigible en el supuesto de disolución de la entidad participada.

d) Que no sea dependiente de ninguna otra residente en terri-torio español, que reúna los requisitos para ser considerada como dominante.

e) Que no esté sometida al régimen especial de las agru-paciones de interés económico, españolas y europeas, y de unio-nes temporales de empresas previsto en el Capítulo III del Título VI de esta Norma Foral ni tenga la consideración de sociedad patri-monial a que se refiere el artículo 14 de esta Norma Foral.

f) Que, tratándose de establecimientos permanentes de enti-dades no residentes en territorio español, dichas entidades no sean dependientes de ninguna otra residente en territorio español que reúna los requisitos para ser considerada como dominante y resi-dan en un país o territorio con el que España tenga suscrito un con-venio para evitar la doble imposición internacional que contenga cláusula de intercambio de información.

3. Se entenderá por sociedad dependiente aquélla sobre la que la sociedad dominante posea una participación que reúna los requisitos contenidos en las letras b) y c) del apartado anterior.

También tendrán esta misma consideración las entidades de crédito integradas en un sistema institucional de protección a que se refiere la letra d) del apartado 3 del artículo 8 de la Ley 13/1985, de 25 de mayo, de Coeficientes de Inversión, Recursos propios y obligaciones de información de los Intermediarios Financieros, siem-pre que la entidad central del sistema forme parte del grupo fiscal y sea del 100 por 100 la puesta en común de los resultados de las

tzen %10 erkidegoan jartzen badute, eta, azkenik, entitateen arteko kaudimen- eta likidezia-konpromisoa entitateotako bakoitzari egozgarriak zaizkion baliabide propioen %100era artekoa bada. Babes-sistema instituzional batean baldintza horiek betetzat joko dira baldin eta hainbat aurrezki-kutxek, modu itunduan, soilik sistemako entitate zentralaren bidez betetzen badute, zuzenean edo zeharka, kreditu-entitate gisa duten xedea, 2010eko uztailaren 9ko 11/2010 Legegintzako Errege Dekretuko 5.4 artikuluan ezartzen denaren arabera (dekretu hori aurrezki-kutxen gobernu-organoei eta araubide juridikoaren beste alderdi batzuei buruzkoa da).

4. Honako inguruabar hauetako bat duten entitateek ezin izango dute talde fiskal bateko kide izan:

a) Zergatik salbuetsita daudenak.

b) Zergaldia ixtean konkurtsoan daudenak eta kapital-sozietateen forma ez eduki arren Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategineko 363.1.d) artikuluan ezarritako ondare-egoeretak batean daudenak (legea uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen); salbuespena: urteko kontuak onetsi diren ekitaldia amaitu aurretik gainditu egin bada konkurtso egoera hori.

c) Sozietateen gaineko Zergan sozietate nagusiak duen karga-tasa barik beste tasa bat duten sozietate filialak.

d) Sozietate filialak, baldin eta haien partaidetza eskuratzeko erabili den sozietateak ez baditu betetzen talde fiskaleko kide izateko ezarritako baldintzak.

e) Sozietatearen ekitaldia, legeak aginduta, sozietate nagusiarenera egokitu ezin duten sozietate filialak.

5. Talde fiskala azkendutzat emango da sozietate nagusiak izaera hori galtzen duenean.

86. artikulua.—Sozietateak talde fiskalean sartzea edo hartatik kanpo uztea

1. Aurreko artikuluko 2. zenbakiko b) letran aipatutako partaidetza eskuratzen bada sozietate baten kapitalean, sozietate hori hurrengo zergaldian talde fiskalean sartu behar da nahitaez. Sozietateak sortu berriak direnean, eratzen diren momentuan bertan sartuko dira taldean, baldin eta, eratzean, talde fiskal bateko kideak izateko gainerako betekizun guztiak betetzen badira.

2. Sozietate filial izateari uzten dioten filialak talde fiskaletik kanpo utziko dira, inguruabar hori gertatzen den zergaldian bertan.

87. artikulua.—Zeharkako nagusitasuna zehaztea

1. Sozietate batek beste sozietate baten kapitalaren %75 edo gehiago badu (edo %70 edo gehiago, sozietatearen akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta badaude), eta, gainera, bigarren sozietate egoera berean badago hirugarren batekiko, eta horrela hurrenez hurren, lehenengo sozietateak besteetan zeharka daukan partaidetza zenbatekoa den kalkulatzeko kapital-portzentajeak biderkatu behar dira, hurrenez hurren, eta biderketaren emaitza %75 izan behar da, gutxienez (edo %70, gutxienez, sozietatearen akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta badaude edo azken sozietate horiek zuzenean zein zeharka partaidetutako sozietateak badira, eta azken horien bitartez portzentaje hori lortzen bada) zeharka partaidetutako talde fiskalean sartu ahal eta behar izateko, eta, gainera, tarteko sozietate guztiak talde fiskaleko kideak izan behar dira.

2. Talde fiskal baten barruko kideen artean hainbat partaidetza-harreman badaude, zuzenekoak eta zeharkakoak, sozietate batek lehenengoak zuzenean zein zeharka kontrolatutako beste baten kapitalean duen partaidetza kalkulatzeko batu egin behar dira zuzeneko eta zeharkako partaidetzaren portzentajeak. Partaidetutako sozietate bat sozietateen talde fiskal taldea sartu ahal eta behar izateko ezinbestekoa da aurreko batura hori gutxienez kapital sozialaren %75 izatea, gutxienez, edo %70, gutxienez, sozietatearen akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta

entidades integrantes del sistema y que el compromiso mutuo de solvencia y liquidez entre dichas entidades alcance el 100 por 100 de los recursos propios computables de cada una de ellas. Se considerarán cumplidos tales requisitos en aquellos sistemas institucionales de protección a través de cuya entidad central, de manera directa o indirecta, varias cajas de ahorros de forma concertada ejerzan en exclusiva su objeto como entidades de crédito, conforme se dispone en el apartado 4 del artículo 5 del Real Decreto-ley 11/2010, de 9 de julio, de órganos de gobierno y otros aspectos del régimen jurídico de las Cajas de Ahorros.

4. No podrán formar parte de los grupos fiscales las entidades en las que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que estén exentas de este Impuesto.

b) Que al cierre del período impositivo se encuentren en situación de concurso, o incursas en una situación patrimonial prevista en la letra d) del apartado 1 del artículo 363 del texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, aun cuando no tuvieran la forma de sociedades de capital, a menos que con anterioridad a la conclusión del ejercicio en el que se aprueban las cuentas anuales esta última situación hubiese sido superada.

c) Las sociedades dependientes que estén sujetas al Impuesto sobre Sociedades a un tipo de gravamen diferente al de la sociedad dominante.

d) Las sociedades dependientes cuya participación se alcance a través de otra sociedad que no reúna los requisitos establecidos para formar parte del grupo fiscal.

e) Las sociedades dependientes cuyo ejercicio social, determinado por imperativo legal, no pueda adaptarse al de la sociedad dominante.

5. El grupo fiscal se extinguirá cuando la sociedad dominante pierda dicho carácter.

Artículo 86.—Inclusión o exclusión de sociedades en el grupo fiscal

1. Las sociedades sobre las que se adquiera una participación como la definida en el la letra b) del apartado 2 del artículo anterior, se integrarán obligatoriamente en el grupo fiscal con efecto del período impositivo siguiente. En el caso de sociedades de nueva creación la integración se producirá desde el momento de su constitución, siempre que se cumplan los restantes requisitos necesarios para formar parte del grupo fiscal.

2. Las sociedades dependientes que pierdan tal condición quedarán excluidas del grupo fiscal con efecto del propio período impositivo en que se produzca tal circunstancia.

Artículo 87.—Determinación del dominio indirecto

1. Cuando una sociedad tenga en otra sociedad al menos el 75 por 100 de su capital social o, al menos, el 70 por 100 del capital social, si se trata de sociedades cuyas acciones estén admitidas a negociación en un mercado regulado y, a su vez, esta segunda se halle en la misma situación respecto a una tercera, y así sucesivamente, para calcular la participación indirecta de la primera sobre las demás sociedades, se multiplicarán, respectivamente, los porcentajes de participación en el capital social, de manera que el resultado de dichos productos deberá ser, al menos, el 75 por 100 o, al menos, el 70 por 100 del capital social, si se trata bien de sociedades cuyas acciones estén admitidas a negociación en un mercado regulado o de sociedades participadas, directa o indirectamente, por estas últimas siempre que a través de las mismas se alcance ese porcentaje, para que la sociedad indirectamente participada pueda y deba integrarse en el grupo fiscal y, además, será preciso que todas las sociedades intermedias integren el grupo fiscal.

2. Si en un grupo fiscal coexisten relaciones de participación, directa e indirecta, para calcular la participación total de una sociedad en otra, directa e indirectamente controlada por la primera, se sumarán los porcentajes de participación directa e indirecta. Para que la sociedad participada pueda y deba integrarse en el grupo fiscal de sociedades, dicha suma deberá ser, al menos, el 75 por 100 o, al menos, el 70 por 100 del capital social, si se trata bien de sociedades cuyas acciones estén admitidas a negociación en un mercado regulado o de sociedades participadas, directa o indi-

badaude edo azken sozietate horiek zuzenean zein zeharka partaidetutako sozietateak badira, eta azken horien bitartez portzentaje hori lortzen bada.

3. Taldeko kideen artean elkarrekiko partaidetzak, partaidetza zirkularrak edo partaidetza konplexuak badaude, datu objektiboak erabiliz frogatu behar da kapitaleko partaidetza %75 dela, gutxienez, edo %70, gutxienez, sozietatearen akzioak araututako merkatu batean negoziatzeko onartuta badaude edo azken sozietate horiek zuzenean zein zeharka partaidetutako sozietateak badira, eta azken horien bitartez portzentaje hori lortzen bada.

88. artikulua.—Zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzea

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatuko da baldin eta talde fiskaleko sozietate guzti-guztiek hala egitea erabakitzen badute.

2. Aurreko zenbakian aipatutako erabakiak akziodunen batzarrak (edo antzeko organoak, merkataritza-sozietate forma ez badu) hartu behar ditu zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatu behar den zergaldiko aurre-aurreko zergaldiko edozein egunetan, eta erabakiak ondorioak izango dituzte aurkaratzen ez badira edota aurkaratzeko biderik ematen ez dutenean.

3. Aurrerantzean talde fiskalean sartuko diren sozietateek aurreko zenbakietan ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte, eta horretarako epea amaituko da, hain zuzen ere, zerga-baterakuntzaren araubidean tributatu behar duten lehenengo zergaldia amaitzen den egunean.

4. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietan aipatutako erabakiak hartu ezean, ez da egongo zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzerik.

Etorkizunean talde fiskalean sartu behar diren sozietateei dagozkien akordioak ez egotea entitate nagusiaren zergen arloko arauhaustea izango da. Araubidea betekizun hori bete gabe aplikatzen den lehenengo zergaldiari dagokion zehapena 2.000 euroko isun finkoa izango da eta 4.000 eurokoa bigarrenean. Zehapenak ez du eragotziko ukituriko entitateak aipatutako taldean sartzea, baina ezinezkoa izango da zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzea baldin eta zerga-baterakuntzaren araubidean tributatu behar duten lehen zergaldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatu beharreko bi urteko epean ez bada lortzen artikulu honetan aipatutako akordioa.

Zenbaki honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

5. Aukera egin ondoren, talde fiskala araubide horri loturik egongo da, modu iraunkorrean, hurrengo hiru zergaldietan, foru arau honetako 85. artikuluan ezarriko betekizunak betetzen badira eta zentsu-aitorpen baten bidez aukera horri uko egiten ez zaion bitartean. Hala egin nahi izanez gero, azken zergaldia amaitu eta hurrengo bi hiletan zehar egin behar da ukoa.

6. Sozietate nagusiak zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzekoa den zergaldia hasi baino lehen jakinarazi behar dizkio Zerga Administrazioari artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako erabakiak.

Halaber, talde fiskalaren osaera aldatzen bada, sozietate nagusiak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio aldaketa horiek, eta identifikatu behar du zer sozietate sartu den taldean eta zer sozietate utzi den taldetik kanpo. Jakinarazpen hori zergaldia amaitzen denetik hilabeteko epean egin behar da.

89. artikulua.—Taldea fiskalaren zerga-oinarria zehaztea

1. Talde fiskalaren zerga-oinarria honako hauek batuz zehaztuko da:

a) Talde fiskaleko sozietate guztien zerga-oinarri indibidualetan; zenbateko horietan ez dira sartu behar ez zerga-oinarri negatiboen konpentsazioak, ez eta foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluaren emaitzen aplikazioa dela eta ezartzen diren zuzenketak ere.

- b) Ezabaketak.
- c) Aurreko ekitaldietan egindako ezabaketen eransketak.

rectamente, por estas últimas siempre que a través de las mismas se alcance ese porcentaje.

3. Si existen relaciones de participación recíproca, circular o compleja, deberá probarse, en su caso, con datos objetivos la participación de, al menos, el 75 por 100 del capital social o, al menos, el 70 por 100 del capital social, si se trata bien de sociedades cuyas acciones estén admitidas a negociación en un mercado regulado o de sociedades participadas, directa o indirectamente, por estas últimas siempre que a través de las mismas se alcance ese porcentaje.

Artículo 88.—Aplicación del régimen de consolidación fiscal

1. El régimen de consolidación fiscal se aplicará cuando así lo acuerden todas y cada una de las sociedades que deban integrar el grupo fiscal.

2. Los acuerdos a los que se refiere el apartado anterior deberán adoptarse por la junta de accionistas u órgano equivalente de no tener forma mercantil, en cualquier fecha del período impositivo inmediato anterior al que sea de aplicación el régimen de consolidación fiscal, y surtirán efectos cuando no hayan sido impugnados o no sean susceptibles de impugnación.

3. Las sociedades que en lo sucesivo se integren en el grupo fiscal deberán cumplir las obligaciones a que se refieren los apartados anteriores, dentro de un plazo que finalizará el día en que concluya el primer período impositivo en el que deban tributar en el régimen de consolidación fiscal.

4. La falta de los acuerdos a los que se refieren los apartados 1 y 2 de este artículo determinará la imposibilidad de aplicar el régimen de consolidación fiscal.

La falta de los acuerdos correspondientes a las sociedades que en lo sucesivo deban integrarse en el grupo fiscal constituirá infracción tributaria de la entidad dominante. La sanción consistirá en multa pecuniaria fija de 2.000 euros por el primer período impositivo en que se haya aplicado el régimen sin cumplir este requisito y de 4.000 euros por el segundo, y no impedirá la efectiva integración en el grupo de las sociedades afectadas, determinándose la imposibilidad de aplicar el régimen de consolidación fiscal, si en el plazo de dos años a partir del día en que concluya el primer período impositivo en que deban tributar en el régimen de consolidación fiscal, persistiera la falta del acuerdo a que se refiere este artículo.

A las sanciones impuestas conforme a lo dispuesto en este apartado le resultará de aplicación lo dispuesto en el artículo 193 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

5. Ejercitada la opción, el grupo fiscal quedará vinculado a este régimen de forma indefinida durante los períodos impositivos siguientes, en tanto se cumplan los requisitos del artículo 85 de esta Norma Foral y mientras no se renuncie a su aplicación a través de la correspondiente declaración censal, que deberá ejercitarse, en su caso, en el plazo de dos meses a contar desde la finalización del último período impositivo de su aplicación.

6. La sociedad dominante comunicará los acuerdos mencionados en el apartado 1 de este artículo a la Administración tributaria con anterioridad al inicio del período impositivo en que sea de aplicación este régimen.

Asimismo, cuando se produzcan variaciones en la composición del grupo fiscal, la sociedad dominante lo comunicará a la Administración tributaria, identificando las sociedades que se han integrado en él y las que han sido excluidas. Dicha comunicación se realizará en el plazo de un mes desde que finalice el período impositivo.

Artículo 89.—Determinación de la base imponible del grupo fiscal

1. La base imponible del grupo fiscal se determinará sumando:

- a) Las bases imponibles individuales correspondientes a todas y cada una de las sociedades integrantes del grupo fiscal, sin incluir en ellas la compensación de las bases imponibles negativas individuales, ni las correcciones en materia de aplicación del resultado establecidas en el Capítulo V del Título IV de esta Norma Foral.
- b) Las eliminaciones.
- c) Las incorporaciones de las eliminaciones practicadas en ejercicios anteriores.

d) Foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluan ezarritakoa-
ren arabera talde fiskalaren emaitzen aplikazioan egin beharreko
zuzenketak (zenbatekook kalkulatzeko, artikuluko honetako 4. zen-
bakian xedatutakoa aplikatuko da).

e) Talde fiskaleko zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa,
aurreko letretan adierazitakoen batura positiboa denean, bai eta
foru arau honetako 92. artikuluko 2. zenbakian adierazitako zerga-
oinarri negatiboen konpentsazioa ere.

2. Foru arau honetako 33-35. artikuluetan xedatutakoa apli-
katzeko betekizunak talde fiskalari dagozkio.

3. Ezabaketak eta eransketak Merkataritzako Kodeko 46. arti-
kuluan eta hura garatzeko gainerako arauetan ezarritako irizpide-
en arabera egingo dira.

Hala ere, jabetza intelektualaren edo jabetza industrialaren gai-
neko eskubideen lagapenak sortzen dituen sarrerak eta eragiten
dituen gastuak (foru honetako 37. artikuluko lehen hiru zenbakie-
tan aipatzen direnak), ezin dira ezabatu talde fiskalaren zerga-oina-
rria kalkulatzeko, nahiz eta lagapena talde fiskaleko entitateen arte-
an egin.

4. Foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluan ezarritakoa-
ren arabera talde fiskalaren emaitzen aplikazioan egin beharreko
zuzenketen zenbatekoa kalkulatzeko, talde fiskalari dagozkion mag-
nitudeak kalkulatzeko aintzat hartuko dira taldearen zergaldiko azken
eguneko urteko kontu bateratuak.

Talde fiskalei inola ere ezin zaie aplikatu foru arau honetako
51.5 artikuluan xedatutakoa, ez eta 52.4 artikuluan xedatutakoa ere.

90. artikulua.—*Ezabaketak*

1. Zerga-oinarri bateratua zehazteko, zergaldian zehar egin-
dako barruko eragiketen ondoriozko emaitzen ezabaketa guztiak
egin behar dira.

Talde fiskaleko sozietateen artean egindako eragiketak barru-
ko eragiketatzat joko dira, baldin eta zergaldi horretan sozietate biak
taldeko kideak badira eta zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzen
bada.

2. Barruko eragiketen ondoriozko emaitza positibo zein
negatiboen ezabaketak emaitza horiek talde fiskaleko entitateen
zerga-oinarri indibidualean daudenean egingo dira.

3. Sozietateen zerga-oinarri indibidualetan sartutako dibi-
denduetatik ez dira ezabatuko foru arau honetako 33.3 artikuluan
xedatutakoa aplikatu zaienak.

91. artikulua.—*Eransketak*

1. Ezabatutako emaitzak talde fiskalaren zerga-oinarriari eran-
tsiko zaizkio hirugarrenen aurrean egiten direnean.

2. Sozietate batek barruko eragiketa batean parte hartu badu
eta, ostean, talde fiskaleko partaide izateari uzten badio, eragike-
ta horretan ezabatu zen emaitza sozietatea taldetik banandu zen
zergaldiaren aurreko zergaldian talde fiskalari zegokion zerga-oina-
rriari erantsi behar zaio.

3. Talde fiskaleko sozietateen partaidetzaren balio-zuzenketa
dela-eta egindako ezabaketarekin, berriz, eransketa egin beharko
da sozietateok taldetik irteten direnean eta balio-zuzenketa eragin
zuen galerari dagokion zerga-oinarri negatiboaren konpentsazio-
eskubidea onartzen dutenean. Partaidetutako entitatea talde fiskaleko
parte izan ez den zergaldietan egindako balio-zuzenketen itzulke-
tak direla-eta ez da eransketarik egingo.

92. artikulua.—*Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa*

1. Talde fiskalaren zerga-oinarria zehazteko aplikatu beha-
rreko arauak jarraituz zerga-oinarri negatiboa ateratzen bada, haren
zenbatekoa foru arau honetako 55. artikuluan ezarritako moduan
konpentsatu ahal izango da talde fiskalaren zerga-oinarri positiboekin.

d) Las correcciones en materia de aplicación del resultado
establecidas en el Capítulo V del Título IV de esta Norma Foral corres-
pondientes al grupo fiscal, para cuyo cálculo se atenderá a lo dis-
puesto en el apartado 4 de este artículo.

e) La compensación de las bases imponibles negativas del
grupo fiscal, cuando el importe de la suma de las letras anterior-
es resultase positiva, así como de las bases imponibles negati-
vas referidas en el apartado 2 del artículo 92 de esta Norma Foral.

2. Los requisitos establecidos para la aplicación de lo dis-
puesto en los artículos 33 a 35 de esta Norma Foral se referirán
al grupo fiscal.

3. Las eliminaciones y las incorporaciones se realizarán de
acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 46 del Códigi-
go de Comercio y demás normas de desarrollo.

No obstante, los ingresos y gastos derivados de la cesión de
derechos de propiedad intelectual o industrial a que se refieren los
apartados 1 a 3 del artículo 37 de esta Norma Foral no serán obje-
to de eliminación para determinar la base imponible del grupo fis-
cal, aun cuando la cesión se realice entre entidades que formen
parte del grupo fiscal.

4. A los efectos de calcular el importe de las correcciones
en materia de aplicación del resultado establecidas en el Capítu-
lo V del Título IV de esta Norma Foral del grupo fiscal, las magni-
tudes relativas al grupo fiscal se calcularán por relación a las cuen-
tas anuales consolidadas del grupo fiscal correspondientes al último
día del período impositivo.

A los grupos fiscales no les resultará de aplicación en ningún
caso lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 51 ni lo dispuesto
en el apartado 4 del artículo 52 de esta Norma Foral.

Artículo 90.—*Eliminaciones*

1. Para la determinación de la base imponible consolidada
se practicarán la totalidad de las eliminaciones de resultados por
operaciones internas efectuadas en el período impositivo.

Se entenderán por operaciones internas las realizadas entre
sociedades del grupo fiscal en los períodos impositivos en que ambas
formen parte del mismo y se aplique el régimen de consolidación
fiscal.

2. Se practicarán las eliminaciones de resultados, positivas
o negativas, por operaciones internas, en cuanto los mencionados
resultados estuvieren comprendidos en las bases imponibles
individuales de las entidades que forman parte del grupo fiscal.

3. No se eliminarán los dividendos incluidos en las bases impo-
nibles individuales respecto de los cuales hubiere procedido la apli-
cación de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 33 de esta Nor-
ma Foral.

Artículo 91.—*Incorporaciones*

1. Los resultados eliminados se incorporarán a la base impo-
nible del grupo fiscal cuando se realicen frente a terceros.

2. Cuando una sociedad hubiere intervenido en alguna ope-
ración interna y posteriormente dejase de formar parte del grupo fis-
cal, el resultado eliminado de esa operación se incorporará a la base
imponible del grupo fiscal correspondiente al período impositivo an-
terior a aquel en que hubiere tenido lugar la citada separación.

3. Se practicará la incorporación de la eliminación de la correc-
ción de valor de la participación de las sociedades del grupo fis-
cal cuando las mismas dejen de formar parte del grupo y asuman
el derecho de la compensación de la base imponible negativa corres-
pondiente a la pérdida que determinó la corrección de valor. No se
incorporará la reversión de las correcciones de valor practicadas
en períodos impositivos en los que la entidad participada no for-
mó parte del grupo fiscal.

Artículo 92.—*Compensación de bases imponibles negativas*

1. Si en virtud de las normas aplicables para la determina-
ción de la base imponible del grupo fiscal ésta resultase negativa,
su importe podrá ser compensado con las bases imponibles posi-
tivas del grupo fiscal en los términos previstos en el artículo 55 de
esta Norma Foral.

2. Sozietate batek talde fiskalean sartzean konpentsatu gabe dituen erga-oinarri negatiboak talde fiskalaren zerga-oinarrian konpentsatu ahal izango dira, muga honekin: sozietatearen zerga-oinarri indibiduala.

93. artikulua.—*Aparteko mozkinak berrinbertitzea*

1. Talde fiskaleko sozietateek aparteko mozkinak berrinbertitu ditzakete, foru arau honetako 36. artikuluan aipatzen den bezala, eta berrinbertsioa egin dezake bai aparteko mozkinak lortu zuen sozietateak, bai talde fiskaleko beste sozietate batek. Berrinbertsioa talde fiskaleko beste sozietate bati eskuratutako elementu batean gauzatu ahal izango da, baldin eta elementu hori berria bada.

2. Ezin izango da aparteko mozkinen berrinbertsioari buruz ezarritakoa aplikatu talde fiskaleko entitateen artean egindako eskualdaketak badira.

Hala ere, eragiketa horien emaitza talde fiskalaren zerga-oinarrian sartu behar izanez gero, taldeak foru arau honetako 36. artikuluan xedatutakoa aplikatu dezake, bertan ezarritako guztia betetzen badu.

94. artikulua.—*Zergaldia*

1. Talde fiskalaren zergaldia sozietate nagusiaren zergaldi bera izango da.

2. Sozietate filialen batek tributazio indibiduala arautzen duten arauen arabera amaitzen badu zergaldi bat, amaiera horrek ez du talde fiskalaren amaiera baldintzatuko.

95. artikulua.—*Talde fiskalaren kuota osoa*

Talde fiskalaren likidazio-oinarriari sozietate nagusiaren karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa izango da talde fiskalaren kuota osoa.

96. artikulua.—*Talde fiskalaren kuota osoan aplikatu daitezkeen kenkariak*

1. Talde fiskalaren kuota osoan foru arau honetan ezarritako kenkariaren zenbatekoa gutxitu daiteke.

Talde fiskal osoak bete behar ditu kenkariok aplikatzeko bete-kizunak.

2. Sozietate batek talde fiskal batean sartzean aplikatu gabe dituen kenkariak talde fiskalaren kuota osoari kendu ahal izango zaizkio, sozietateak tributazio indibiduala araubidean izango lukeen muga berarekin.

97. artikulua.—*Informazioa emateko betebeharra*

1. Zergari dagokionez, sozietate nagusiak balantzea, galea-irabazien kontua, ondare garbiak ekitaldian izandako aldaketak eta diru-fluxu bateratuen egoera-orria prestatu behar ditu; horretarako, integrazio globalaren metodoa aplikatuko die talde fiskala osatzen duten sozietate guztiei.

2. Urteko kontu bateratuak sozietate nagusiaren urteko kontuak ixten den egun eta epe berari buruzkoak izan behar dira, eta sozietate filialek, berriz, sozietate nagusiak bere ekitaldia ixten duen egunean bertan itxi beharko dute haien ekitaldia soziala ere.

3. Lehenengo zenbakian aipatutako dokumentuei honako informazio hau erantsi beharko zaie:

a) Eransketak egin gabe dituzten aurreko zergaldietako ezabaketak.

b) Zergaldian zehar egindako ezabaketak; haien jatorria eta zenbatekoa behar bezala justifikatu behar dira.

c) Zergaldian zehar egindako eransketak; haien jatorria eta zenbatekoa ere behar bezala justifikatu behar dira.

d) Talde fiskalaren zerga-oinarria zehazteko eta artikuluko honetako 1. zenbakiko agiriak prestatzeko egindako ezabaketen eta eransketen artean egon daitezkeen diferentziak, behar bezala azalduta.

2. Las bases imponibles negativas de cualquier sociedad pendientes de compensar en el momento de su integración en el grupo fiscal podrán ser compensadas en la base imponible del mismo, con el límite de la base imponible individual de la propia sociedad.

Artículo 93.—*Reinversión de beneficios extraordinarios*

1. Las sociedades del grupo fiscal podrán aplicar la reinversión de beneficios extraordinarios a que hace referencia el artículo 36 de esta Norma Foral, pudiendo efectuar la reinversión la propia sociedad que obtuvo el beneficio extraordinario, u otra perteneciente al grupo fiscal. La reinversión podrá materializarse en un elemento adquirido a otra sociedad del grupo fiscal a condición de que dicho elemento sea nuevo.

2. La reinversión de beneficios extraordinarios no procederá en el supuesto de transmisiones realizadas entre entidades del grupo fiscal.

No obstante, cuando el resultado correspondiente a esas operaciones deba incorporarse a la base imponible del grupo fiscal, éste podrá aplicar lo dispuesto en el artículo 36 de esta Norma Foral siempre que cumpla los requisitos establecidos en el mismo.

Artículo 94.—*Período impositivo*

1. El período impositivo del grupo fiscal coincidirá con el de la sociedad dominante.

2. Cuando alguna de las sociedades dependientes concluyere un período impositivo de acuerdo con las normas reguladoras de la tributación en régimen individual, dicha conclusión no determinará la del grupo fiscal.

Artículo 95.—*Cuota íntegra del grupo fiscal*

Se entenderá por cuota íntegra del grupo fiscal la cuantía resultante de aplicar el tipo de gravamen de la sociedad dominante a la base imponible del grupo fiscal.

Artículo 96.—*Deducciones de la cuota íntegra del grupo fiscal*

1. La cuota íntegra del grupo fiscal se minorará en el importe de las deducciones previstas en esta Norma Foral.

Los requisitos establecidos para la aplicación de las mencionadas deducciones se referirán al grupo fiscal.

2. Las deducciones de cualquier sociedad pendientes de aplicación en el momento de su inclusión en el grupo fiscal podrán deducirse en la cuota íntegra del grupo fiscal con el límite que hubiere correspondido a dicha sociedad en el régimen individual de tributación.

Artículo 97.—*Obligaciones de información*

1. La sociedad dominante deberá formular, a efectos fiscales, el balance, la cuenta de pérdidas y ganancias, un estado que refleje los cambios en el patrimonio neto del ejercicio y un estado de flujos de efectivo consolidados, aplicando el método de integración global a todas las sociedades que integran el grupo fiscal.

2. Las cuentas anuales consolidadas se referirán a la misma fecha de cierre y período que las cuentas anuales de la sociedad dominante, debiendo las sociedades dependientes cerrar su ejercicio social en la fecha en que lo haga la sociedad dominante.

3. A los documentos a que se refiere el apartado 1, se acompañará la siguiente información:

a) Las eliminaciones practicadas en períodos impositivos anteriores pendientes de incorporación.

b) Las eliminaciones practicadas en el período impositivo debidamente justificadas en su procedencia y cuantía.

c) Las incorporaciones realizadas en el período impositivo, igualmente justificadas en su procedencia y cuantía.

d) Las diferencias, debidamente explicadas, que pudieran existir entre las eliminaciones e incorporaciones realizadas a efectos de la determinación de la base imponible del grupo fiscal y las realizadas a efectos de la elaboración de los documentos a que se refiere el apartado 1 anterior.

98. artikulua.—Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzea dakarten arrazoiak

1. Arrazoi hauengatik galduko da zerga-baterakuntzaren araubidea:

a) Talde fiskaleko sozietateren batean Zergei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatzea dakarten inguruabarretako bat edo batzuk gertatzea.

b) Informazioa emateko betebeharrak —aurreko artikuluko 1. zenbakian azaldutakoa— ez betetzea.

2. Zerga-baterakuntzaren araubidea galtzeak aurreko zenbakian azaldutako arrazoietakoa bat edo batzuk ematen diren zergaldian bertan izango ditu ondorioak, eta talde fiskaleko sozietateek zergaldi horretan araubide indibidualean tributatu beharko dute.

99. artikulua.—Zerga-baterakuntzako araubidea galtzeak eta talde fiskalaren azkentzeak dituen ondorioak

1. Baldin eta, zerga-baterakuntzaren araubidea galtzen den zergaldian edo talde fiskala azkentzen den zergaldian eransketa egin gabeko ezabaketak, talde fiskalaren zerga-oinarri negatiboak edo kuotan konpentsatu gabeko kenkariak badaude, era hone-tan jardungo da:

a) Eransketa egin gabeko ezabaketak zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzen den azken zergaldian talde fiskalari dago-kion zerga-oinarrian sartuko dira.

Aurrekoa ez da aplikatuko entitate nagusia, berehala, beste talde fiskal baten sozietate filial bihurtzen bada, ez eta foru arau honetako VI. tituluko VII. kapituluari ezarritako araubide bereziaren araberako bat-egite prozesu batean beste talde bateko sozietate batek irensten bada ere. Batera zein bestera, sozietate horren filial guz-tiak beste taldean sartuko dira. Ezabatutako emaitzak beste zerga-taldearen zerga-oinarriari erantsiko zaizkio, foru arau honetako 91. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Honen aurreko lerroaldean ezartzen dena betetzeko, nahita-ezkoa izango da talde fiskalak —aurreko inguruabar horien ondorioz eratuak— zerga-baterakuntzaren araubidean tributatzea aurreko taldeak azken aldiz zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatu zuen zergaldiaren osteko zergaldiko lehen egunetik.

b) Araubidea galdu edo azkentzen den zergaldian talde fis-kala osatzen duten eskuratuko dute talde fiskalak konpentsatu gabe zeuzkan zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko eskubidea, sozietate bakoitzak zerga-oinarria osatzen lagundu zuen neurrian.

Kompentsazioa tributazio-araubide indibidualean zehaztutako zerga-oinarri positiboekin egingo da, foru arau honetako 55.1 arti-kuluari ezarritako epea amaitzeko falta diren zergaldietan, talde fis-kalak zerga-oinarri negatiboak zehaztu zituen azken zergaldi edo zergaldietatik aurrera zenbatuta.

Aurreko a) letrako bigarren lerroaldean ezarritakoa aplikatze-koa den kasuetan, foru arau honetako 92.2 artikuluan ezartzen den araua aplikatzerakoan kontuan hartuko dira sozietate nagusi iza-teari utzi dion sozietatea buru zen talde fiskaleko sozietate guz-ti guztiak.

c) Araubidea galtzen edo azkentzen den zergaldian talde fis-kalean dauden sozietateek talde fiskalak aplikatu gabe dituen kua-ta-kenkariak konpentsatzeko eskubidea eskuratuko dute, sozietate bakoitzak kenkariak osatzen lagundu zuen neurrian.

Kompentsazioa tributazio-araubide indibidualean zehaztutako kuota osoetan edo likidoetan egingo da, foru arau honetan aplikatu gabeko kenkariak egiteko ezartzen den epea amaitzeko falta diren zergaldietan, kendu beharreko zenbatekoak zehaztu ziren azken zergaldi edo zergaldietatik aurrera zenbatuta.

Artículo 98.—Causas determinantes de la pérdida del régimen de consolidación fiscal

1. El régimen de consolidación fiscal se perderá por las siguientes causas:

a) La concurrencia en alguna o algunas de las sociedades integrantes del grupo fiscal de alguna de las circunstancias que de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria determinan la aplicación del régimen de estimación indirecta.

b) El incumplimiento de las obligaciones de información a que se refiere el apartado 1 del artículo anterior.

2. La pérdida del régimen de consolidación fiscal se producirá con efectos del período impositivo en que concurra alguna o algunas de las causas a que se refiere el apartado anterior, debiendo las sociedades integrantes del grupo fiscal tributar por el régimen individual en dicho período.

Artículo 99.—Efectos de la pérdida del régimen de consolidación fiscal y de la extinción del grupo fiscal

1. En el supuesto de que existiera, en el período impositivo en que se produzca la pérdida del régimen de consolidación fiscal o la extinción del grupo fiscal, eliminaciones pendientes de incorporación, bases imponibles negativas del grupo fiscal o deducciones en la cuota pendientes de compensación, se procederá de la forma siguiente:

a) Las eliminaciones pendientes de incorporación se integrarán en la base imponible del grupo fiscal correspondiente al último período impositivo en el que sea aplicable el régimen de consolidación fiscal.

Lo anterior no se aplicará cuando la entidad dominante adquiera inmediatamente la condición de sociedad dependiente de otro grupo fiscal o sea absorbida por alguna sociedad de ese otro grupo en un proceso de fusión acogida al régimen especial establecido en el Capítulo VII del Título VI de esta Norma Foral, al cual se integran todas sus sociedades dependientes en ambos casos. Los resultados eliminados se incorporarán a la base imponible de ese otro grupo fiscal en los términos establecidos en el artículo 91 de esta Norma Foral.

Para la aplicación de lo dispuesto en el párrafo anterior será necesario que el grupo fiscal, configurado con ocasión de las circunstancias descritas tribute en régimen de consolidación fiscal desde el primer día del período impositivo siguiente a aquél en el que el anterior grupo aplicó por última vez el régimen de consolidación fiscal.

